

TOKIKOM

2013ko uztaila | 128. zenbakia

# ai kor!

txorierriko aldizkaria



Arin  
ugaltzen gara





Larrabetzuko Udalak  
jai zoriontsuak opa  
deutsuez herritar guztioi



Larrabetzuko Udala



**LARRABETZU**  
☎ 94 455 81 97  
**LOROÑO BEHEKOA**  
(BIZKAIA)



kirol zerbitzuak S.L.



kirol instalazioen kudeaketa: ustiapena, garbiketa eta mantentzea –  
kirol erakusketak –  
goi mailako pilota taldeen entrenamenduak –  
entrenatzaileentzako eta adituentzako kurtsoak eta kongresuak –  
kirol elkarten kudeaketa: kluba, federazioak –  
eskolaz kanpoko jarduerak –  
udalekuak –

Basaras auzoa, 4  
48195 Larrabetzu BIZKAIA  
944 558 276 / 944 558 143  
652 710 532  
faxa: 944 558 276  
[www.xakerkirola.com](http://www.xakerkirola.com)

**FOTERI TABERNA**



Andra Mari Kalea, 22  
Teléfono 455 80 98

48195 LARRABETZU-Bizkaia



*Ondo pasa jaietan!*

**INES**  
**JANARI-DENDA**

Iturrikoetxea, 3  
48195 Larrabetzu  
T: 94 455 84 33



Jai euskaldunak  
opa dizkizuegu

**arrekkikili**  
Larrabetzuko euskara elkarteak



**Argitaratzailea:** TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)  
Tel.: 94 452 34 47  
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Erredakzio taldea:** Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoe-txea eta Aritz ta Nagel

**Kolaboratzaileak:** Eder Merino, Ana Mezo, Idoia de Andrés, IZAE, Egoitz Mozo, Asier Sáenz, Xabier Díaz, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxa-ka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

**Zuzentzaileak:** Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

**Banaketa:** Egunon

**Maketatzailea:** Gaizka Eguzkitza

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 7.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



12 Lagatzu Eguna



22 Larrabetzu eta Lezamako jaiak



30 Inma Roiz, idazlea

-  **4** Eritxia
-  **5** Gutunak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **12** Lagatzu Eguna - Euskal Jai
-  **14** Gaztea eta... Iker Aurtenetxe, abokatua
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Tximintx, 10 urte
-  **22** Larrabetzuko jaiak
-  **25** Zorionak!
-  **26** Lezamako jaiak
-  **28** Osasuna... Zistitis interstiziala
-  **30** Inma Roiz, idazlea
-  **32** Merkataritza sustatzeko kanpaina
-  **34** Teknologia... 3D inprimaketak
-  **35** Aikorritzetan... Egunerokoa idatzi...
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda

Casas Reales  
**Txorierrri**  
MPE 475

Rocio Astorkia Bordegaray  
Kepa Herguedas Manso  
María Conde Bilbao  
Ainhoa Rodríguez Mella

Mixine 6, behea - 48150 - Sondika (geitokiaren aurrean)  
T.: 944 711 638 - Larrialdia: 670 985 885 - www.txorierrri.com

IMQ  
AEGON

**Ford** **Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.  
48150 Sondika  
Bizkaia

94 453 25 15  
94 453 39 31

**GALAISIA**  
Etegiak eta ordutegia

Estetika eta ile-apaindegia  
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3, SONDIKA



**EDER MERINO**  
(Kazetaria)

**G**oizean goiz, gurean errotutako dantza bikoterik ezagunenak kaleak betetzen ditu. Ardo beltza eta koka-kola, koka-kola eta ardo beltza, irrintziekin, musikarekin eta irmoki plazaratutako aldarrikapenekin nahasten dira –Euskal Herrian inon baino gehiago–. Giroa irabiatzen duen lehergailu horrek hiriak eta herriak bete, eta egunak eta gauak bahitzen ditu. Askoren nahiak ezinean geratzen dira, eta neurririk gabeko ezta-riak alkoholetan ito ere bai. Anabasa.

“Aldapak leunduz” lelopean, 31 koma etiliko sendatu zituzten osasun-zerbitzuek Ibilaldiaren azken ediziora hurreratu ziren gazteen artean. Alkoholak hainbat aho eta nahi mututu zituen egoera leundu baino, guztiz lizunduz. Aldarrikapen sasoi ahaztu eta inongo neurririk gabeko antzezlan dramatikoak jasan behar izan zuten askok. Honen harira, Santiago Mintegi pediatrik hamarkada batean Euskadiko nerabeen artean koma etilikoak %155 igo direla azpimarratu zuen, eta horrek hausnarketa bat baino gehiago merezi du.

Gure inguruan, gehienetan, aldarrikapen garaik edariz gainezka egiten duen edalontzia behar du beste eskuan. Tradizioa dela ez nuke esan nahi, baina aukera dugun heinean errebindikazioak jai-giroan egitea gustatzen zaigu. Hala ere, nahaste horrek neurririk ez duenean, egoerak eztanda egiten du eta Portugaleten ikusitakoak gertatzen dira. Zilegi eta

beharrezkoak diren borrokak mozkorraldiz inguraturiko kiribil batean galtzen dira aldarrikapenaren zentzua galdu arte. Alkoholak gazte askoren kontzientziak desegiten ditu, bai artaldean erosoago sentitzeko edota oihuka esaten duten hori benetan sinesteko.

Hausnarketa orokorrak eta pertsonalak ere eskatzen ditu egoerak. Jai-giroa noiz eta nola egin, eta aldarrikapenak zergatik egin, barneratu behar da zentzuz jokatzeko. Hemen inoiz baino gehiago, jaiak eta eskabideek elkarrekin konponenterik badutela ulertu behar dugu, baina beti norabidea galdu gabe eta bakoitzari dagokion unea eta tokia eskainiz. Esaten erraza bada ere, orientatze eta heldutasun lana baino ez du eskatzen, kausa guztiek komunetik behera edo anbulantzia batean bukatu ez dezaten. Guztiok egin beharreko hausnarketaren bidean, alkohola edaterik egongo ez balitz, gazteria era berean mugituko litzateke?

**1** 937an, Larrabetzun eta osterantzeko leketan faxismoaren kontra burrukan ibili ziranak omendu genduzan bagilaren 21, 22 eta 23an. Hitzaldia, adierazpen instituzionala, omenaldi-ekitaldia, kantaldia, gerra denporako aztarnak ezagutzeko ibilpidea eta abar egin ziran. Asturiasetik hainbat lagun etorri ziran. Euretariko batzuk, adinekoak eta burruka kontuetan eskarmentu handikoak. Nahastean, gaitero talde bat be etorri zan.

Datuen arabera, Asturiasetik Euskal Herrira 20.000 lagun inguru etorri ziran. Horreetako batzuk inguruotan ibili ziran eta 14tik gora Larrabetzun geratu ziran lurperatuta.

## Asturiarrak, Euskal Herrian



**ANA MEZO**  
(Irakaslea)

Omenaldian, egindako burrukaren balioaren aitortza egin jaken. Gerran ibilitakoen ondorengoak be egon ziran. Honeentzat garrantzitsua da sufrimentuz beteriko kapitulu honeri zelanbaiteko amaiera emotea eta tokiren bat izatea senideei agurra egiteko.

Esandakoa kontuan hartuta, bi proposamen: bata, Larrabetzun, Bolunburun, jarri dan monolitoari bisita egitea. Bestea, Youtuben dagoan A golpe de tacón ikustea. Honetan agertzen diran andrazkoetarikoa bat joandako hilean ezagutu genduan Larrabetzun. Kartzelan takoiagaz horman jotzen komunikaten zan gainontzeko presoakaz.

*Consulting*  
**Sondika s.l.**

*Sabin Askolizaga*  
Aseguru agentzia  
Allianz  
609 475 746

Milvino, 6 behean  
48150 Sondika-Bizkaia

T.: 94 453 10 07  
Fax: 94 453 60 27

**Izpilen**  
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 Ionia - 48150 SONDIKA (Bizkaia)  
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com

**IRATXO**  
gazotegia

berta pertsonalizatuak:  
trufak  
bilak  
pastelak  
pastak

*Mikel Zurroa, 2 - 3. Ionia • Sondika, 48150 • 94 945 89 79*

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, AIKORI-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikori.com.

## Lanpostuak defendatu, etorkizuna irabazi

Etorkizuna irabazi Txorierriko Gazte Komunisten Batasunak hausnarketa hau egin du lan-hitzarmen kolektiboen defentsaren haritik: Patronalak edozein preziotan ezarri nahi du lan-erreforma. Horregatik, langileok lanpostua eta etorkizun egoki bat bermatzeko dugun bide bakarra borroka bateratua da. Izan ere, hitzarmen kolektiboen defentsa pausu bat da burgesiaren nahien kontrako erresistentzian.

Enpresariak langileen aurka jo dute, lan-indarraren esplotazioa handitzeko eta langileok lortutako eskubideak ezabatzeke. Modu hori bada kapitalismoak krisi estrukturalari aurre egiteko duen bide bakarra. Kapitalismopean gutxi batzuk aberasten dira gehiengoaren lanari esker. Krisi honetan haiek aberatsagoak bihurtzen ari dira; eta gu, pobregoa. Burgesiak langabezia-tasaren igoera, enplegu-kolokatasuna eta bizikostu altuak erabiltzen ditu etekin handiagoak ateratzeko.

Bestalde, sindikatuen arteko desadostasunak langileen egoera ahuldu du azken urteotan. Desadostasun hori sindikatuen kupularen izate oportunitarengatik izan da. Zentzu honetan, gizar-



te-klase berdinekoak garenez, gure etsaiei denok bat eginez egin behar diegu aurre, gure kolpeak norabide berdinerantz joan behar dira.

Gazte Komunisten Batasunetik hurrengo proposatzen dugu: langileok oinarritik hasi behar gara batasuna egiteko, lantoki bakoitzean eztabaidak, ekintzak eta lortu beharreko helburuak antolatuz. Denok batera eraiki ahal

ditugu antolakuntza-ereduak, borroka goi-mailetara eraman eta, horrela, gure helburuei heldu ahal izateko.

Sindikalismo borrokalaria berreskuratzea guztion erantzukizuna da, Pakto Soziala bertan behera utziz eta oligarkiaren aurrean gure jarrera indartzuz.

*Txorierriko Gazte  
Komunisten Batasuna*

Ovela ekoizten dugu:  
odolosteak, txorizoa,  
beistorra, solomoak...  
Plater aurrekozinatu

Golri, 4 - 48150  
Sondika - Bizkaia  
94 453 16 17

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia  
Tel./FAxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11  
txori-erri@euskalnet.net

karregandik gertu

ABIOLKULARITZA - FASAZIOA  
ALOKATZEAK - ESKUALDUTEAK  
SALERROSKEAK  
SEGI BOKI BILBAGOREN AGENTZIA

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,  
prentsa, aldirkariak, liburuak,  
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxes: 94 453 16 77  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrazaga, 1  
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

## Hondakin organikoak biltzeko Austriako eredia, Larrabetzun

Irailaren 26an, 19:30ean, hitzaldi bat emango da Larrabetzuko Anguleri Kultura Etxean, eta bertan azalduko da nolako sistema erabiltzen den Austrian hondakin organikoak biltzeko eta tratatzeko. Hitzaldia Ramón Planak emango du, hondakinen tratamendu biologikoan aditua denak. Ekitaldi hori Larrabetzuko Udalak antolatu du eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du. Austriako eredia honetan datza: herritarrek etxeko hondakinak bereizten dituzte eta baserritarrek hondakinak bildu eta konpostatzen dituzte, beren lurretan ongarriztat erabiltzeko. Udalak bilketa-lana ordaintzen die baserritarrei. Larrabetzun esperientzia pilotua egingo da eta bertan 30 familiak hartuko dute parte. Izena emateko epea irailean zabalduko da.

## Erromes Eguna

Loiuko Larrakotxe auzoko jai-batzordeak Erromes Eguna antolatu du abuztuaren 14rako. Arrastian, umeentzako puzgarriak egongo dira, eta 18:30etik aurrera, tailerrak. Aurreko urteetan bezala, arrastiko 8etan lore eskaintza egingo diote Aitor Irazolari, eta ostean saiheskijana izango da. Erromeria ere izango da eta erromesak 00:30ean irtingo dira Begoñako basilikarantz.

## Lezamako mendi taldeak bere urteurrena ospatuko du irailean

Lezama Gailur mendi taldeak 22 urte bete ditu eta, urteurrena ospatzeko, Lezama-Gailur Eguna egingo dute irailaren 27an eta 28an. Besteak beste, hitzaldiak, ikus-entzunezko emanaldiak, argazki erakusketak, umeentzako jolasak eta herri bazkaria egongo dira egun horietan. Horrezaz gainera, ibilbide bat antolatuko dute herriko leku eta paisaia adierazgarrietatik. "Taldearen urteurrena ospatu eta Lezama-Gailur Eguna urteko egutegian hitzordu finkoa bihurtu nahi dugu. Baina batez be taldea herrira berriro hurbiltzea da gure erronkarik handiena. Herri-

tarrei jakinarazi nahi diegu taldea Lezama-ren baliabide interesgarri bat dela, eta hor dagoela, bizi-bizirik", esan dute elkartetik.

Bestalde, datozen hilabeteetan ere jarraituko dute beren egutegiarekin. Hala, Alpeetara joango dira abuztuaren; Neouvillera, irailean; Europako mendietara, urrian; eta Basatxira, azaroan. Era berean, aurreko ikasturteetan egin duten bezala, hainbat irteera antolatuko dute eskolako gurasoen elkartearekin batera, umeengan mendizaletasuna pizteko. Informazio gehiagorako: gailurmt@euskalnet.net eta Facebook.



  
hotela  
jatexea  
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200  
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)  
Telefona: 94 403 69 00  
Faxa: 94 403 69 01  
e-mail: hotel@aretxarte.com  
e-mail: reservas@aretxarte.com  
www.aretxarte.com

  
Iñaki 94 455 65 08      Jabi 94 452 14 31  
**Magalarte Txakolina**  
ARETXABALETAK HONDA ETA BILLAGARITA  
Bizkaiko Txakolina 75 cl. 10,75% vol.  
Denominación de Origen

Construcciones-Reformas  
**IÑIGO BARCENA**  
Igeltserotza orokorra  
  
Arbolantxa kalea, 8 - 1.º izk.  
ZAMUDIO  
Tel/Fax: 94 452 29 10  
Mobila: 665 70 33 12

  
**luz zamudio**  
ARGI APARATUAK  
Nekazari kalea, 4 (Iorja) Tel./Faxa 94 452 11 60  
48170 Zamudio - Bizkaia



## Euskal Jaia, Sondikan

Altzora Sondikako euskara elkarteak Euskal Jaia antolatu du irailaren 21erako. Egun osoan zehar, ume, gazte zein helduentzako ekitaldiak egingo dira. Goizeko 11etan zirko tailerra egongo da, eta haren ostean, hegazti harraparien erakustaldia. Hori eguerdiko 12etan egingo dute Ikurrinaren enparantzan. Eguraldi txarra bada, karpapa eroango dute ekin-tza. Eguerdian herri-bazkaria egingo da. Nagusiek 15 euro ordaindu beharko dute; eta umeek, 10 euro. Txartelak

hemen eskura daitezke: eskolako gurasoen elkartearen egoitza, Egarrri taberna eta Santa Kurtzeko jaietarako jarriko den txosna; edo, bestela, 635753595 telefono zenbakira deituz ere eskura daitezke.

laz, 300 lagun inguru batu ziren Euskal Jaian eta Altzorako kideek espero dute aurtengo hitzordua ere arrakastatsua izatea. "Hau euskararen aldeko jaiada, euskaldunok batzen gaituena, eta nahi duten guztiak ongi etorriak izango dira, jaira zein elkartera".

## Lezamako lasterketan izena ematea

Lezamako Mugetatik mendi ibilaldia eta mendi lasterketa irailaren 1ean egingo dira. Aurtengoak zortzigarrenak dira eta izena eman daiteke dagoeneko [www.lezama-komugetatik.com](http://www.lezama-komugetatik.com) webgunean, bertan parte hartzeko. Parte-hartzaileek 25 kilometroko ibilbidea egin beharko dute eta 1.000 metro desnibela igo. Ibilaldia goizeko 8:30ean hasiko da, eta lasterketa, 10:00etan. Ibilaldi txiki bat ere izango da, goizeko 10etan hasiko dena. Bestalde, aipatu beharra dago aurreko urteetan Lezamako Mugetatik proba antolatu zuten taldeak batu eta elkarte berri bat osatu dutela: Mugetatik lezamar kirol kluba.

## Joserra Goikoetxea, gogoan

Senide eta adiskideek jakinarazita-koaren arabera, ekainaren 26an 60 lagun bildu ziren Loiu, Joserra Goikoetxeari omenaldia egiteko, 28 urte direlako hil zutela. Urteurren-ekitaldian, txalaparta jo, lore eskaintza egin eta Agurra dantzatu zen. Era berean, espetze-politika salatzen zuen testu bat irakurri zen eta euskal presoek eskubideak aldarrikatu ziren. Familiak 28 urtean sentitutako babesa eta maitasuna eskertu zituen. Ekitaldiari amaiera emateko, Eusko gudariak kanta abestu zuten.

**ZURREGOITI**  
JATETXEA  
Laurroeta etorbidea, 27  
48180 Lolu-Bizkaia  
T-Faxia: 94 453 24 40  
[restauranteaurregoiti.com](http://restauranteaurregoiti.com)

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berriak  
Logopedia  
Podologia  
Kiropraxia

**clinica dental ZAINDUZ hertz klinika**

Txorierri etorbidea, 9 - Lorga | Arteaga anakina | 48180 DERIO  
94 454 01 01 | 657 79 54 45  
[info@dentalzaindus.com](mailto:info@dentalzaindus.com) | [www.dentalzaindus.com](http://www.dentalzaindus.com)

**OSKARBI**  
fotografoak  
JOSEBA APEZETXEA

TALLER KALEA 3  
48170 ZAMUDIO BIZKAIA  
TEL. 944 520 014 / 607 400 078  
E-mail: [apeze@euskalnet.net](mailto:apeze@euskalnet.net)

**elekma**  
LURRATZORREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELKARTINGO BERRIKI TELEBISIEN ETA ETXETRESNA ELKARTINGO TOOKAK

leherengoa markak • Heziarik onenak  
**BOSCH, SIEMENS, BALAY**

Txorierri etorbidea, 25-3 N • 48180 Lolu  
T: 944 539 232  
[www.elekma.es](http://www.elekma.es)

**RUBEN**  
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Lizarola plaza, 5  
48170 Zamudio  
94 452 34 49

**Ne-apraindegia**  
M<sup>o</sup> Antonia Llodio TAP  
TAP

Txorierri etorbidea, 6  
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

## “Euskaraz bizi nahi dut” herri lasterketa, Txorierrin

Irailaren 21etik urriaren 20ra bitartean herri lasterketak egingo dira Euskal Herriko hainbat herritan, “Euskaraz bizi nahi dut” kanpainaren haritik. Lasterketa Txorierrin ere egingo da. Egitasmoa Kontseiluak antolatu du bigarren aldiz, eta euskaraz bizitzeko nahia adieraztea du helburu. Lasterketa herrikoiak izango dira eta familia osoari egongo dira zuzenduta. Hala, umeentzako eta nagusientzako ibilbideak prestatuko dira, guztiak lasterketan parte hartu ahal izateko. Datozen egunetan informazio zehatzagoa jakinaraziko da Txorierrin eta Euskal Herriko lasterketei buruz.

## Kepa eta Areneren oroimenezko lasterketa

Lasterketa irailaren 15ean egingo dute. Ekitaldia adin guztiak korrikalariei zuzenduta dago eta hainbat kategoria osatuko dira adinaren arabera. Izena ematea doakoa da, nahikoa da 944540159 telefonora deitzea edo gure\_seneak@yahoo.es helbidera mezu bat bidaltzea. Korrikalariak goizeko 10:30ean irtengo dira Derioko kiroldegitik.

## Hondakin organikoetarako edukiontzia elektronikoki kudeatuko dira Zamudion

Zamudioko Udalak hondakin organikoetarako edukiontzi berria aurkeztu du. Edukiontzi horren zabaltze-sistema elektronikoa da. Halako sistema bat duen lehenengo edukiontzia da Euskadin, Herritarren Txartelerako garatu den teknologian oinarritua. Herritarren Txartela txartel pertsonalizatu bat da, 14 urtetik 85 urte bitarteko zamudioztar guztiei doan bidali zaiena. Txartela erabil daiteke udal izapideak egiteko, erreserbak egiteko, Udalaren kirol- eta kultura-instalazioetan sartzeko eta Jagon Zamudion webgunean gorabeheren berri emateko. Hemendik aurrera, hondakin organiko-

tarako edukiontzia zabaltzeko ere erabili ahal izango dute.

Zerbitzua martxan jarri ahal izateko, txartela hurbiltzean aktibatzen den irakurle elektronikoa bat ipini da edukiontzi marroiaren ohiko sarrailaren ordean. Edukiontzian kontrol bolumentrikorako sistema bat jarri da, edukiontzian zenbat lekua dagoen jakiteko eta bilketa zerbitzua hobetzeko. Edukiontzia sarritan erabiltzen dutenek diru-kopuru batzuk hartuko dituzte sarritan, herriko saltokietan gastatzeko. Diru-kopuruak txartelean bertan ezarriko dira, txartelak erostekak ordaintzeko ere balio duelako.



RPS: 184-10

**OPTIKA IKUSLAN**

Arbolantxa kalea, 5. behea  
ZAMUDIO  
Tel.: 94 452 28 18

**HORTZ KLINIKA**

Idoia Zubietza

Ostai-zentroa & Hortz-esteka  
HORTZ-PLANTEAK - ORTUOGINTZA-ESTRATEGIA  
HERRIARRIEN ERABILKETA

Dr. Arrieta kalea, 11 - 1. esk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22  
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

**ERREKA ONDO ETXEA**

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80  
Zamudio 48170 (Bizkaia)  
Tfnoa: 94 452 14 19  
Faxa: 94 452 26 29

**TALLERES JUAN ANDRES**

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA  
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind. 8 - 216 Pab.  
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**LEANDRO LANDETA**

**HARAGITEGIA-URDAITEGIA**

Oiz. Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

**Garmendia ardoak**

Pinoa pol., P-3B  
ZAMUDIO  
Tel./Faxa: 94 452 00 49



## IGO kanpaina erabat arrakastatsua izan da

Txorierriko euskara elkarteek "Irakurri, gozatu eta oparitu" kanpaina jarri zuten martxan Topagunearekin batera. Egitasmoa adin-tarte guztietako txorierri-tarrei egon da zuzenduta, eta, besteak beste, irakurketa sustatzea eta euskararen erabilera gozagarria bultzatzea izan ditu helburu. Kanpainak apiriletik ekainera bitartean iraun du eta oso arrakastatsua izan da, 653 lagunek hartu baitute parte bertan.

Sondikan, 29 lagunek egin dute bat kanpainarekin: 19 ume eta 10 heldu; Derion, 474 lagun: 434 ume eta 40 nagusi; Zamudion, 75 lagun: 50 ume eta 25 heldu; Lezaman, 32 ume; eta Larrabetzun, 43 lagun: 40 ume eta hiru heldu. Egitasmoaren arduradunak oso pozik azaldu dira herritarren erantzunarekin eta, aipatu duten moduan, kanpainaren ondorioz mugimendu handiagoa egon da liburutegietan.

Kanpainan parte hartu dutenek erosketa-txeke bana jaso dute, euskarazko liburuak erosteko. Zamudioko liburutegian 41 liburu erosi dira; bederatzi liburu, Sondikan; eta 50 liburu, Derion. Liburu-saltzaileak ere pozik agertu dira kanpainari esker egindako salmentekin, izan ere, azaldu digutenez, egitasmoak iraun duen hilabeteetan ez da ohikoa euskarazko hainbeste liburu saltzea.



## Atanasio Jauregiren estatua, berrituta

Atanasio Jauregi apaiz pasiotarra-  
raren estatua txikia berritu dute Larrabetzun. Estatua Goikoelexalde auzoan dago, elizaren aurrean. "Estatua orain 60 urte jarri zen eta aspaldian izan duen egoera lotsagarria zen. Dirua batzea lortu genuen eta azkenean txukundu egin dugu", esan digu Martzel Andrinuak, garbiketa-  
ren sustatzaileak. Andrinua ere apaiz pasiotarra da eta irailaren 8rako omenaldia prestatu du Goikoelexaldeko elizan, 12:00etan. Han ospakizun txiki bat egingo da eta euskal dantzak eta kantak eskainiko dira. Gainera, Ormaiztegiko Miguel Irizar, Callaoko gotzaina (Peru) izan zena, egongo da mezan. Atanasio Jauregi apaiz pasiotarra izan zen, larrabetzuarra, 1877an jaioa eta 1957an hila. Orain 100 urte, Hegoamerikara joan zen misiolari. Amazonas inguruan ibili zen misioetan, batez ere eskolak eta etxeak eraikitzen.

## Gazte Eguna

Hori Bai Larrabetzuko gaztetxeak Gazte Eguna antolatu du abuztuaren 3rako. Goiza trikitalariak girotuko dute eta, horrezaz gainera, eskalada egingo da. Besteak beste, kantaldia, olinpiadak eta kalejira egongo dira bazkariaren ostean. Kontzertuak lheskide, Governors eta Itziarren semeak taldeek emango dituzte. Era berean, dj-ek musika ipiniko dute gau osoan zehar gaztetxean.

**HARATEGIA**  
**ALBERTO**  
Arbolantxa, 4  
T: 94 452 08 25  
48170 ZAMUDIO

**ESTILISTA**  
**EVA ARDINES**  
*AmAr*  
Neska-hiztulen lelapaindegia  
Asteartea - Ostrala: 9etatik-19etara  
Larunbata: 9etatik-14etara  
Urbe Plaza, 1 - Behea 48170 Zamudio  
Telefonoa: 94 452 94 19; (Aurreko tsandá)

**GAMINIZ**  
**JATETXEA**  
Tel/Fax: 944 317 025  
email: gaminiz@gaminiz.com  
Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa  
48170 Zamudio · Bizkaia  
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W  
www.gaminiz.com

**ama**  
**taberna**  
Ibaizabal plaza, 9 - Behea (Zamudio)  
94 452 94 09

Txinbo kalea, 9  
48170 ZAMUDIO  
94 452 26 75  
**BIDE-GORRI**  
Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak  
8:00etatik irekia  
WIFI gunea

## Santimami (Zamudio)

### Abuztuak 16, barikua

- 12:00: Bolandera nagusia.
- 14:30: Herri bazkaria.
- 18:00: Umeentzako jolasak.
- 21:00: Txitxi-burruntzia.
- 22:00: Dantzaldia, Trio Kalifornia taldearekin.

### Abuztuak 17, zapatua

- Puzgarriak, egun osoan zehar.
- 12:00: Meza, ermitan. Goiza Bertokoko trikitalariak girotuko dute.
- 14:00: Sukalki Txapelketa.
- 16:30: XVII. Mus Arin-arina (Izena ematea, 16:00ak arte, Santimami zelaian).
- 17:30: Umeentzako tailerrak.
- 20:30: Tortilla Txapelketa.
- 21:00: Sardina jana.
- 22:00: Dantzaldia, Arizgoiti taldearekin.
- 00:00: Sorgina erretzea eta txokolata-da.

### Abuztuak 18, domeka

- 12:00: Meza, ermitan.
- 13:00: Omenaldi-kopaua, auzoko nagusientzat.

## Sandoni (Zamudio)

### Abuztuak 31, zapatua

- Egun osoan zehar, umeentzako puzgarriak.
- Paella Txapelketa.
- 10:30: Txupinazoa.
- 11:30: Meza, ermitan. Ostein, euskal kantak.
- 14:00: Paellak aurkeztea.
- 16:30: Mus Txapelketa. Ostein, txapelketen sariak banatzea.
- 20:30: Txitxi-burruntzia.
- 22:00: Dantzaldia, Zesuma taldearekin.

### Irailak 1, domeka

- 12:30: Meza, ermitan. Ostein, Iru-bat dantza taldearen emanaldia.
- 20:00: Idi-probak.
- Txitxi-burruntzia.

### Irailak 2, astelehena

- 13:00: Meza, ermitan. Auzoko nagusientzako omenaldia.

## Auzoko jaiak

Abuztuan eta irailean jaietan izango dira Txorierriko auzoak. Uztaileko alea itxi orduko, hurrengo lehenetan dituzuen jai-egitarauen berri eman digute.

## Larrondoko jaiak (Loiu)

### Abuztuak 30, barikua

- 18:00: Txupinazoa eta ikurrina jasotzea.
- 18:00: "Joseba Bilbao" Futbol Txapelketa Triangularra: CD Loiu + CD Sondika + SD Erandio.
- 19:30: Umeentzako pelikula.
- 21:30: Tortilla Txapelketa.
- 22:30: Kontzertua.
- 23:30: Berbena, Honat taldearekin.

### Abuztuak 31, zapatua

- 14:30: Herri bazkaria. Ostein, Mus, Tute eta Briska Txapelketak.
- 17:30: Herri kirolak, umeentzat.
- 19:00: Animalien erakustaldia, Gorritiren eskutik.
- 22:00: Mozorro festa, txikientzat.
- 22:30: Mozorro festa, nagusientzat.
- 00:00: Erromeria, Akerbeltz taldearen eskutik.

### Irailak 1, domeka

- Egun osoan zehar, umeentzako puzgarriak.
- 10:00: Elotxelerriko azoka.
- 11:30: Meza eta ohorezko aurrekua.
- 13:00: Omenaldia eta kopaua, nagusientzat.
- 14:00: Piper eta Paella Txapelketak.
- 17:00: Apar jaia, umeentzat.
- 18:30: Playback.
- 22:00: Jaien amaiera.

## Santa Kurtze (Sondika)

### Irailak 13, barikua

- 18:00: Dj Jon Urbietia.
- 00:00: Akerbeltz + Dj Astola.

### Irailak 14, zapatua

- 10:00: Marmitako Txapelketan izena ematea.
- 11:00: Kalejira, Ipar Elaiak txistu taldearen eskutik.
- 11:00: Haurrentzako parkea.
- 11:30: Kalejira, Triki Xabierrekin.
- 12:30: Meza. Ostein, ohorezko aurrekua, Gorantzaleak dantza taldearen eskutik.
- 14:00: Marmitakoa aurkeztea eta sariak ematea.
- 17:00: Futbol Txapelketa triangeluarra: Apurtuarte + Loiu + Sondika.
- 20:00: Mediopelo antzezlan, Ganso & Cía taldearen eskutik.
- 23:30: EH Sukarra + Betagarri + Oihan Vega.

### Irailak 15, domeka

- 11:00: Kalejira, Ipar Elaiak txistu taldearen eskutik.
- 11:00: Marrazketa eta Pintura Lehiaketa, umeentzat.
- 11:00: Haurren parkea.
- 13:30: Lehiaketaren sariak ematea.
- 18:00: Dantzen agerraldia, Gorantzaleak dantza taldearen eskutik.



### Irailak 27, barikua

- 19:00: Txosnak irekitzea. Argazki eta Bal-koi Lehiaketei hasiera ematea.
- 19:30: Kalejira.
- 21:00: Pregoia eta txupina.
- 21:30: Txixi-burruntzia.
- 00:00: Berbena, Lisker taldearekin. Atse-denean, show erotikoa.
- 04:00: Diskoteka.

### Irailak 28, zapatua

- 10:00: Traka.
- 11:30: Gastronomía Lehiaketa.
- 13:00: Eivissako arratsaldeari hasiera ematea.
- 14:00: Kazolak aurkeztea eta sariak ematea.
- 15:00: Herri bazkaria. Potentzia handiko traka.
- 16:00: Drag Queen baten ikuskizuna.

## San Migel (Derio)

- 17:30: Dj Porti.
- 18:30: Koktelak.
- 20:00: Mozorro Txapelketa, umeentzat.
- 21:00: Mozorro Txapelketa, nagusientzat.
- 00:00: Kontzertua.
- 02:00: Dj EuskoSound.
- 06:00: Diskoteka.

### Irailak 29, domeka

- 10:00: Traka.
- 11:00: Umeentzako parkea.
- 17:00: zezenketa.
- 19:00: Dantzaldia.
- 20:30: Kopaua, jubilatuentzat.

### Urriak 3, eguena

- 17:30: Umeei zuzendutako arratsaldea.
- 20:00: Umeentzako diskoteka.



### Urriak 4, barikua

- 19:30: Txorizoa, sagardo-puntuarekin.
- 21:00: Karaokea.
- 22:00: lleordeen gaua.
- 00:00: Berbena, Akerbeltz taldearekin.
- 03:00: Montaitoak.
- 04:00: Diskoteka.

### Urriak 5, zapatua

- 10:30: "Julio Garitano" Futbito Txapelketa.
  - 14:00: Indaba jana.
  - 15:00: Ezusteko postrea.
  - 17:00: Zezenketa.
  - 19:00: Pintxo poteoa, trikitilariak girotua.
  - 00:00: Berbena, Vulcano orkestrarekin.
  - 04:00: Diskoteka.
- ### Urriak 6, domeka
- 10:00: Traka.
  - 13:00: Ikuskizuna.
  - 15:30: Jai-batzordearen bazkaria.
  - 18:00: Dantzen agerraldia, Lainomendi taldearen eskutik.
  - 19:30: Sariak banatzea.
  - 20:00: Txokolatada.
  - 20:30: Diskoteka.
  - 23:00: Txupina eta jaien amaiera.

## San Bartolome (Zamudio)

### Abuztuak 23, barikua

- 17:00: Bolandera nagusia.
- Mus Txapelketa.
- 20:30: Txixi-burruntzia eta ardoa.
- Erromeria, Dantza alai taldearekin.

### Abuztuak 24, zapatua

- 13:00: Meza, ermitan.
- Bakailao pil-pil erara Txapelketa.
- Omenaldi-kopaua, auzoko nagusientzat.
- 13:30: Bakailao kazolak aurkeztea.
- 19:00: Idi probak.

Erromeria, Dantza alai taldearekin.

- 01:00: Txokolatada eta erromeria.

### Abuztuak 25, domeka

- 12:30: Meza, ermitan.
- 13:30: Umeentzako jolasak, maskarak, eta sokatira (emakumeak gizonen kontra). Bertokoko trikitilariak alaitua.
- 20:00: Patata tortilla Txapelketa.
- Erromeria, Dantza alai taldearekin.
- 00:30: Mozorroak.
- 01:30: Txokolatada, erromeria eta jaien amaiera.

**Patxi KOOP.**  
BANATZAILE OFIZIALA

Ilahoa  
www.patxi.coop

Sakelako telefonoa: 945 07 73 00  
NEBVER pol. - Etezarre kalea, 4  
48170 ZAMUDIO - Bizkaia  
✆ faxa: 94 452 25 87  
patxiscoop@patxi.coop

**Peñasko**  
arraindegia

Mendiko, 4  
48170 Zamudio  
Tel.: 94 452 0808

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 08  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)

**SANTI MAMI**  
ALBAITARITZA

Nerea Pedrosa Calo, 117  
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO  
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15  
Faxa: 94 454 12 15

**BAR RAFI**  
ESPEZIALTATEA. PINTXOAK

Rafael Garcia Tejero

Oiz Kalea, 5 T: 94 400 08 08  
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Mobila: 607 406 613

**R P A**  
MAYORISTAS INFORMÁTICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA  
SAREEN MANTENIMENDUA  
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio  
Tel: 944521544 - http://www.rpmmayoristas.com



a: IZAE eta Egoitz Mozo

Ederra eta ikusmin handikoa. Aurten-go Lagatzu Eguna – Euskal Jaiak “Emon hegoak euskereari” euki dau lelotzat eta hori hain zuzen be izan da antolatzaileek eta parte-hartzaileek egin dabena. Agirre Lehendakari plazan oso ekintza bitxia antolatu eben: herri mosaiko erraldoi bat. Hirurehun eta berrogeta hamar lagun inguruk kartoi mehe bana hartu eta aita-tutako leloa osatu eben guztien artean. Momentua zerutik harrapau zan, helikoptero batetik argazkiak egin ziran-eta. Kamarak garabi baten eta zenbait balkoitan be ipini ziran, mosaikoa perspektiba ezbardinetatik fotografiau eta grabau ahal izateko.

“Teknikoki nahiko ekitaldi arriskutsua zan. Alde batetik, erraza ez dalako hainbeste jente koordinau eta, alde aurretik, oso behar zehatza egin behar izan zan, bakotzak jakin eian nondik sartu behar

## Lagatzu baino gehiago

Lagatzu Eguna – Euskal Jaiak oso ekintza parte-hartzailea eta integratzailea dala dinoe. Bertan 80 urtekoa 18 urtekoagaz alkartzen dalako; kolore batekoa, beste kolore batekoagaz; boxeoa egiten dauena, dantzan dabilenagaz; futbolaria dana, motorzaleagaz... eta euskeraz dakiana, euskeraz ez dakianagaz. Ekainaren 29a egun eder-rra izan zen Zamudion.

zan, non ipini... Bestetik, hegazkinen ibilpidean gagozanez, egun horretako hegal-di-plangintzara moldatu behar izan ginalako. Baina jentea zintzo-zintzo ibili zan eta erronka gairiditu genduan”.

Kartoi meheak lurrean itxi eta eskunarru zuriak jantzi. Ekitaldirako apaindu eben antxinako school bus amerikar

batek umeak eroan zituan Agirre Lehendakari plazatik Leizaola Lehendakari plazara. Nagusiak kalejiran joan ziran autobusaren atzetik. Han 300 bat lagun batu ziran gurasoen alkarteak antolatutako flashmobearen parte hartzeko. Ume, gazte zein helduek dantzatu eben Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren Eskue-

**GORBEIA MERTZERIA**

Gorbeia kalea, 7  
ZAMUDIO  
94 655 90 06

**Bar TRIPPY**  
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbollean jokatu, etorri zaitzez Trippya, Deriora

Behoko Kalea Bajoa  
DERIO

**MODA INFANTIL**  
**Tximeleta**

Gernikako Arbola, 8  
Telefona: 94 454 14 35  
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO  
Bizkaia

tan abestia. Esku zuriek hegoak emon eutsiezan osterara be euskereari. Irudiak zerutik zein lurraren arrasean hartu ziran oraingo honetan be bai.

Zamudioztarrek egun luzeari egin behar izan eutsien aurre, aitaturakoez gainera, beste ekintza batzuk izan zirala-ko: kale-jira-bira-dantza-poteoa, motor eta mehatzetako jokoak, herri bazkaria, "Taldeka kantau" ekintzea eta erronomia. Herri bazkariari jagokonez, esan beharra dago harek aurreko urteetako zifrak gainditu zituala, bertan 620 lagun lotu zirala-ko. Euskerea eta euskal kulturea nagusi izan ziran herrian, goizetik gauera arte. Helburua bete zan, beraz.

Lagatzu Zamudioko euskera alkarte-ko kideek argi dabe ekintzaren arrakastea ez dala bakarrik beren meritua. "Gure izena daroa, baina Lagatzu baino gehiago da. Egun hori posible da han herriko alkarte guztiek parte hartzen dabelako. Musu-truk, gainera. Guk bakarrik antolatuz gero, ezinezkoa izango zatekean egun hau aurrera atera ahal izatea". Egia esan, Lagatzu Eguna – Euskal Jaiak herri-ko talde guztien laguntzea euki dau hasiera hasieratik, eta guztiak haren parte sentiduten dira. Badagoz faktore batzuk sentimentu hori adierazoten dabenak. Hareetako batzuk ekitaldiaren aurreko egunetan zein ekitaldian bertan sortzen dan giroa eta taldekideek helarazoten daben poza dira, baina batez be ekitaldiaren izaera parte-hartzailea eta integraztailea azpimarratu dabe. "Guk beti euki dogu argi gauzak herriko taldeakaz batera egin behar dirala".

Lagatzu Eguna – Euskal Jaiak zamudioztarrek gogo bizienez itxaroten daben jai bihurtu da. Gero eta gitxiago faltaten da hurrengo hitzordurako. Ez dakigu aurtengoa baino itxurosoagoa izango dan, baina horrek ez dau inporta, bertan herri-tar guztiek parte hartzen jarraitzen bada-be. Hori da-eta jai herrikoi honen esentzia.



Astaldi eta suspertze  
soziokulturaleko

**IKASTAROAK**

Bizkalko

**Urtxintxa Eskola**

[urtxintxaeskola.org](http://urtxintxaeskola.org)

**IKASTARO LUZEAK**

- Astialdiko begiralea *Txonierri*
- Astialdiko zuzendari ikastaroa
- Jendarte kultur dinamizatzailea
- Hezkidetzan aditua
- Nola sustatu parte-hartzea?
- Heziketa premia bereziak astialdian
- Heziketa premia bereziak eta sexualitatea
- Kulturarteko hezkuntzaren hastapenak



**IKASTARO LABURRAK**

- Zer behar dute adimen gaitasun handiko pertsonak?
- Balioetan hezteko jolasak
- Haurren parte-hartzea sustatzeko teknikak
- Garapenerako hezkuntza eta kontsumo arduratsua
- Komunikazioaren oinarriak
- Barreterapla

Bizkalko Urtxintxa Eskola. Zabalbide 26, 48006 BILBO • T: 94 432 04 45

> **Matrikulazio epea**  
**irailaren 2tik 30era**

t: Itxaso Marina / a: Iker Aurtenetxe

### Egon zaran ordezkartzaren jardun-eremua Txile eta Peru dira. Zein izan da zure beharra han?

Aholkulari ibili naz eta danetarik egin behar izan dot: filial bat bertan ipini gura eben enpresei aholkuak emotea, hemengo merkataritza kamaren bisitak koordinetea, enpresentzako txostenak egitea, hartu-emonia izatea Txileko metropolialdeko alkateakaz, ministerioakaz, erakundeakaz, euskal etxeakaz... Informazioa emotea behar bila etozanei...

### Hego Amerika aukeraz beteriko lurraldea ei da. Zer pentsetan dozu zuk?

Entzun dodanaren arabera, lehen "aireportuan bertan" topaten zenduan beharra. Baina gauzak aldatu egin dira. Egia da batzuek berehala topaten dabela beharra, baina beste batzuek hilabeteak emoten ditue beharra topau barik. Dana dala, edozein kasutan, kontuan hartu behar da oso alde handiak dagozala Euskal Herria eta Txile –eta, orokorrean, Hego Amerika– artean.

#### Adibidez?

Oso langabezia-tasa txikia dabe, baina hemen persona batek egiten dauen beharra lau lagunere artean egiten dabe han. Gainera, lanbide arteko gutxieneko soldata 320 eurokoa da eta Santiago hiri garestia da. Ondorioz, kreditu pilo bat daukie. Supermerkaduan, esate baterako, kuota ordaintzen ditue erosketak. Bestalde, osasunari jagokonez, sare publikoa zein pribadua euki arren, dana Estatu Batuetatik kopiaren dabenez, gurago dabe osasun pribadura jo, eta ez da asko inbertitzen osasun publikoan.

#### Eta hezkuntzari jagokonez?

Herrialdeak 17 milioi biztanle baino ez daukaz, baina ikastetxe eta unibersidade

# "Badagoz 32 modu Santiago ikusteko"

IKER AURTENETXE | abogadua

Ikerrek 28 urte ditu eta Zamudiokoa da. Igaz, beka bat eskuratu eban eta Eusko Jaurlaritzak kanpo harremanetarako Txilen daukan ordezkartzan ibili da praktikak egiten orain dala gitxi arte.

*"Taberna baten ardao bat eta pintxo bat hartu ahal izatea bota dot faltan"*

asko. Publikoak zein pribaduak. Garestia da unibersidadean ikastea, eta gobernuak kredituak eskaintzen ditu. Baina asko karrera itxi behar izaten dabe bigarren edo hirugarren urtean, ezin dabelako kreditua ordaindu.

#### Santiagon bizi izan zara, zelakoa da uriburua?

Egia esateko, ez jat gustau. Ia biztanle erdiak bizi dira uriburuan eta, nire ustez, uri zikina eta aspergarria da. Uriburuan 32 auzo inguru dagoz eta hareen arteko aldeak oso handiak dira. Baina, herrialde moduan, Txile oso interesgarria eta polita da. Bost mila kilometro ditu iparraldetik

hegoaldera, eta kilometro horreetan paisaje eta bizimodu guztiz desbardinak topaten dozuz. Iparralde basamortua da eta erdialdea, Santiagotik apur bat hegoalderaino, hemengo paisajearen antzekoa da. Hegoaldean Patagonia dago. Gehien gustau jatana hegoaldea da.

#### Eta jentea?

Apur bat mesfidatiak dira hasiera baten eta, euren esanetan, apur bat bekaiztiak be bai. Baina gogoko bazaitue, ez dago arazorik. Oso etxezaleak dira, izan be, Pinochet garaiko errepresioa dala-eta, etxean egiten eben bizimodu: etxetik beharrera eta beharretik etxera. Ez jake gustetan eztabaidatzea. Guk oso ozen egiten dogu berbea eta, uste dabe beti ibiltzen garala eztabaidan.

#### Arazorik euki zenduan bertakotzeko?





Ez, oso azkar ohitu nintzan herrialde-  
ra. Hasieran arazoak euki nebazan hizkun-  
tzeagaz, esapide asko erabilten dituelako  
eta ez neban ezer ulertzen. Distantziak be  
txarto eroaten nebazan: metroan sartu  
eta han 30 minutu emon ostean, auzo  
berean jarraitzen dozu. Beste alde batetik,  
ni oso kafezalea naz eta Txilen ez daukie  
kafe kulturarik. Kafetegi dezente batzuk  
topau nebazan, baina garesti urteten dau,  
kafe bategaitik hiru euro inguru ordaindu  
behar dalako. Eskupekoakaz be arazoak  
euki nebazan. "Derrigorrezkoa" izan ez  
arren, % 10eko eskupekoa ixteko "ohitu-  
rea" dago eta, lehen aitatu dodan  
moduan, Santiago ez da hiri merkea.  
Orduan, afari bategaitik sei euroko esku-  
pekoa emon beharra jazo leiteke... Zerbi-  
tzariek diru gehiago ateraten

dabe eskupekoetatik euren soldatetik  
baino, jakina.

#### Zelan emoten zenduan denpora librea?

Jenteagaz lotzen nintzan kafe bat har-  
tzeko, eta asteburuetan merkadu nagusi-  
ra joaten nintzan. Ha itzela da eta oso  
fruta eta barazki onak dagoz bertan. Turis-  
moa be egin dot eta Santiagoko auzoak  
bisitau dodaz. Santiagok badaukaz 32  
auzo, badagozalako 32 Santiago edo San-

tiago ikusteko 32 modu ezbardin. Eure-  
tako batzuetan Bilbon baino jente gehia-  
go bizi da eta, danetariko zerbitzuak dau-  
kiezanez, jenteak ez dau handik urteten.  
Valparaisora joateko ohiturea be baneu-  
kan, arnasa hartzera, Santiagon polizio  
handia dagoalako. Eta parrilladak egiten  
genduzan lagunakaz, etxean eta indarrak  
galdu arte. Bigarren eskuko gauzak salgai  
egozan merkadu batera joatea be guse-  
tan jatan, eta munduko hainbat txokota-  
ko jatetxeak egozan kale batera...

#### Zer botaten zenduan faltan?

Familia eta lagunak, zelan ez. Eta  
taberna baten, barran bertan, ardao bat  
eta pintxo bat hartu ahal izatea. Txilen  
mahai baten eseri behar zara, eta askotan  
zerbait jan be bai.

#### Barriro joatea gustauko litxakizu?

Oso esperientzia ona izan da eta ez  
litxakit inportauko barriro joatea, baina  
urte baterako edo birako; ez bizi guztira-  
ko. Dana dala, ezin da jakin bizitzak nora  
eroango zaituan. Bekea amaitu egin jat  
eta prest nago edozein proposamen  
aztertzeko. Hego Amerikako beste herrial-  
de batera joatea be ez litxakit inportauko.



POLITEKNIA IKASTEGIA  
**TXORIERRI**  
S.COOP.  
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional  
Larriñe Heziketa eta Bigarren Hezikuntzarako Ikastetxea

Untzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 80 | info@txorierri.net  
48160 - DEIRO | Fax: 94 403 40 81 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



#### BATXILERGOA

- Zientziak eta Teknologia

#### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizatu

#### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Ekolizpenaren Programazioa
- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Telekomunikazioa eta Informatika Sistemak
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrola

# Lankidetzaren hitzarmena sinatu dugu Gurutze Gorriarekin

Uztailan, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak hitzarmen bat sinatu du Uribe Aldeko Gurutze Gorriarekin, egoera larrian dauden pertsonen laguntza emateko. Horien beharrezan erantzuna emateko, zenbait proiektu sustatuko dira. Proiektuetariko batzuk martxan jarri dira dagoeneko, hala nola "Krisiaren eragina pairatzen duten familientzako laguntza" egitasmoa, eta besteei laster ekingo zaie.



## KRISIAREN ERAGINA PAIRATZEN DUTEN FAMILIENTZAKO LAGUNTZA

Egitasmo hau Mankomunitateko gizarte-langileek koordinatzen dute. Alde batetik, arreta ematen zaie beren kargu adingabeak dituzten familiei. Zuzeneko laguntza da, zero hilabetetik eta 24 hilabetera bitarteko umetxoaren beharrezan betetzeko, eta egoera larrian dauden pertsonen edo familien beharrezan, norbere garbitasunari eta etxearen garbitasunari lotutakoak, betetzeko. Zero hilabetetik 24 hilabetera bitarteko umetxoaren higienarako eta elikadurarako produktuak zuzuten sortak banatu dira.

Bestetik, egoera larrian dauden lagunei eta familiei laguntza eskaini zaie, norbere garbitasunari eta etxearen garbitasunari lotuta dituzten beharrezan betetzeko. Etxearen garbitasunerako eta norbere garbitasunerako produktuak zuzuten sortak banatu dira.

## Boluntarioen bila gabiltza!

**Boluntarioak proiektu birako behar ditugu: bata lehen mailako irakaskuntzako ikasleei eskola-laguntza emateko proiektua da; eta bestea, behar duenari lana topatzen laguntzeko. Boluntarioek bizi-pahiru ordu lan egingo dute astean. Umeei zuzendutako proiektuan parte hartzen dutenek arratsaldeko ordutegia edukiko dute; eta enpleguari zuzendutako proiektuan interesa dutenek, goizeko ordutegia.**

**Izena eman / Informazioa:**  
94 460 92 95  
[socialesuribe@cruzroja.es](mailto:socialesuribe@cruzroja.es)  
(Asami Díez)

## ESKOLA-ARRAKASTA

Laster jarriko da martxan eta Mankomunitateko gizarte-langileek koordinatuko dute. Proiektuak helburu hauek ditu: eskola-arrakasta txikitatik lantzea, etorkizunean ikasketei lotutako zailtasunak ekiditeko; zailtasun horiek dituzten umeei laguntza ematea; bizimodu osasungarriak bultzatzea (higiene-ohiturak, elikadura...); eta askaria hartzeko guneak sortzea. Bost urtetik 10 urtera bitarteko umeei prebentzio-ekintzak egingo dira. Horretarako, jokoa erabiliko da eta adinari dagozkion oinarrizko kontzeptuak indartuko dira. Besteak beste, arreta, orientazioa eta oroimena landuko dira; psikomotritate eta gorputz-eskema garatuko dira; eta ikasiko da emozioak kudeatzen, eta arauak eta mugak onartzen. Hamaika urtetik hamalau urtera bitarteko umeei laguntza emango zaie etxeko lanak egiteko.





## ENPLEGU-PLANA

Egitasmo hau Egaz Txorierrerekin batera sustatu da, eta 18 urtetik 30 urtera bitarteko langabetu gazteei lan-merkatuan sartzea erraztea du helburu. Hala, zerbitzu pertsonalizatu bat eskaintzen da orientazio-ekin bidez, heziketa eta lan-bitartekotzaren bidez eta enplegurako laguntza osagarrien bidez. Ekintzak gazteak produkzio-ehunera hurbiltzera daude bideratuta, enplegagarritasuna hobetzera eta lan-eskarmentua ematera. Proiektuak enpresen laguntza ere badu, eta hauei dago zuzenduta: lanbide-prestakuntza gutxi dutenei edo ez dutenei; lan-eskarmenturik ez dutenei edo hura krisialdiak eragin txarra eduki duen sektoretan izan dutenei; eskola oso gazteak zirela utzi zutenei edo eskola-porrota eduki dutenei; krisia kide guztiek pairatzen duten familietan bizi diren gazteei; eta lehenengo lanaren bila dabilzanei.

## GAZTERIA

Egitasmoa Mankomunitateko Esku-hartze komunitarioko teknikariak koordinatu egiten du, eta urrakortasun-egoeran dauden umeei eta gazteei dago zuzenduta. Hala, horiei heziketa integral bat ematen zaie, gizartearen aktiboki parte hartu ahal izateko. Besteak beste, giza eskubideen eta umeen eskubideen gaineko heziketa ematen zaie, nerabe eta gazteen portaera bortitzak ekiditen saiatzen da, eta osasun-ehzkuntza eskaintzen zaie.



# Gazteen emantzipazioaren alde

Emantzipazioa Txorierriko gazteen aldarrikapenik garrantzitsuenetariko bat da. Era autonomo, independente eta aske batean bizi izatea gazteriek zein gizarteak duten kezka da. Gainera, erakundeek hamarkada bat baino gehiago daramate gazteei buruzko datuak eta hausnarketak batzen, eta horietan guztietan ideia hau da nagusi: gure Lurralde Historikoko gazteak gero eta beranduago emantzipatzen dira.

Esandakoa kontuan hartuta, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatek Emanzipagazte proiektua jarri dugu martxan, "Eman pausua" leloa duena. Egitasmoak gazteen emantzipazioaren alde egitea du helburu, eta Erandioko Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera sustatu dugu.

Emanzipagazte proiektua beren kabuz bizi izaten hasi nahi duten 18 urtetik 29 urtera bitarteko gazteei dago zuzenduta. Horretarako, Mañarikua Derioko egoitzan hilabete bi emateko aukera eskaintzen diegu. Gazteek banako gela hartu ahaliko dute, edo gela beste lagun batekin partekatu. Mankomunitateak hilabete bat ordainduko du; eta bestea, erabiltzaileak.

Autonomiak eta emantzipazioak harreman zuzena dute erosteko ahalmenarekin. Hori gazteek bizitza autonomo bat eduki ahal izateko faktore erabakigarria dela dakigunez, egonaldia lau hilabete gehiago luzatzeko aukera ere badago, baldintza ezin hobekak eskaintzen direla.

Bestalde, gazteak hainbat gaitasunetan trebatuko ditugu, arrakastaz emantzipa daitezten. Ikastaro hauek emango dira: bizikidetzeta, sukaldaritzeta, etxeko ekonomia, etxeko konponketak, etxebizitza, garbiketeta eta lisaketak, eta kultura eta lan-orientabidea. Ikastaroak urrian eta azaroran, martitzenetan eta eguenetan, emango dira Derioko Kultur Birikan eta Mañarikua egoitzan.

### Izena ematea, abuztuan

Independenteak izateaz gainera, gure gazteak solidarioak ere izatea nahi dugu. Horregatik, hilabete biko egonaldiaren ostean, 30 orduko borondatezko lana



egingo dute Txorierrin. Hori proiektuaren arduradunen eta parte-hartzaileen artean adostuko da.

Egitasmoan interesa dutenek inskripzio-orri bat bete beharko dute. Inskripzio-orria Txorierrin eta Erandioko gazteentzako informazio-bulegoetan eskura dezakete, edo e-mailez. NAN fotokopia bat eta errolda-ziurtagiria ere aurkeztu beharko dituzte, datuak egiaztatzeko.

Epe bi zabaldu ditugu izena emateko. Lehenengoa uztailean izan da, eta bigarrena abuztuaren 19tik irailaren 13ra arte egongo da zabalik. Epea amaitzen denean, Txorierriko Mankomunitateko Gazteria Sailetik egitasmoan izena eman duten lagunekin jarriko gara harremanetan, irailaren 23an eta 24an hautaketa-prozesua egiteko. Aukeratzaren diren lagunak urriaren 1ean hasiko dira egoitzan.

Informazio gehiagorako, Txorierrin eta Erandioko gazteentzako informazio-bulegoetako arduradunekin jar zaitezke harremanetan.

**Txorierrin:** 688629965 (Fernan), 16:30etik 18:30era. gib@txorierrin.eu

**Erandio:** 946025891 (Bego), 09:00etik 14:00etara. gazteinfo@erandioko-udala.net.

# Euskararen tximintxak

Hamar urte pasatu dira Derioko jaietan gazte batzuk bildu eta herrian euskara bultzatzeko zer egin ahalko zuten aztertzen hasi zirela. Handik gutxira beste talde bat agertu zen plazan: Tximintx euskara elkarte. Hamar urteko lana, ahalegina eta ilusioa hurrengo istorioan batu dituzte.

Munduan 6.000 tximintx mota (=hizkuntza) baino gehiago daude. Asko, desagertzeko zorian. Gurean hiru, baina guk **TXIMINTXA** (=euskara) maite dugu.

Tximintx\* aukeratu genuen izentzat, Resurrección Maria de Azkuek jaso zuen bezala, larrabetzuarrak akerrak badi-ra, lezamarrak zorriak eta zamudioztarrak perretxiko ustelak, derioztarrak tximintxak garelako.

\* Tximintx: Eus: zimitx. Gaz: chinche. Fr: punaise, Ing: true bug. Izen zientifikoa: Cimex lectularius

**Derion be euskaraz gabiltz!**

Derion euskararen inguruko dinamika gutxi zuden. Horregatik, herriko hainbat pertsona batu eta Tximintx euskara elkarte sortu genuen.

Ezberdinak ginen gure artean, baina euskarak batu gintuen. Ezberdintasunak gainditu eta hasi ginen lan ez alderdikoia egiten euskararen alde.

**TXIMINTX**  
DERION BE EUSKARAZ GABILTZ

zeu be egin zaitetz baskide

Euskara zen gure oasia Derioko basamortuan. Eta oasi gehiago sortu nahi genituen. Adarren soinua erabili genuen tximintxak deitzeko.



Olentzero...

Eta sustraietan sakondu genuen.



sasimartxo...



txarribodak...



Berbalagunak olgetan ipini genituen...

Euskara ondo dakitenak eta hain ondo ez dakitenak batu ditugu ordubeteetan, astean. Bakoitzak nahi duena egiteko: kafea, paseoa, argazkiak... eta beste ehunka kontu. Urte hauetan 100 derioztarretik gora izan gara berbalagun.



... eta txikerrenak kukuken.

**KUKUKE ANTZERKI ESKOLAREN EKITALDIA DERION**

**Gurea Aretxean arratsaldeko 18:00etan**

Txikitatik gure hizkuntzarekin olgetan, antzerki-gintzan. Euskara bizi-bizian, eta ondo pasatuz.

**lezama**  
consultorio veterinario  
albaitaritza klinika  
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga  
BI-515

**Medikuntza orokorra**  
**Txertaketak**  
**Parasitoak hil**  
**Mikrotxipa**  
**Kirurgia**  
**EKG**  
**Analisiak**  
**Ospitalizazioa**  
**Ekografiak**

**SERVICIO de urgencias 24h**

94 455 56 19    Aretxalde, 21bis    48196 Lezama

**Baserritarren Alkartea**  
**Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS  
48196 LEZAMA  
☎ 94 455 60 16  
e-mail: lezama@fcae.org  
Bazkideak: 144

**Pentsu naturalak**

Herritarrek beren bidaiak kontatu dizkigute.



Jaietan izan gara...



... eta herria martxan jarri.



Bertsolariekin gozatu dugu...



... musikarekin,





Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKULETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO-GOZOGINTZA APARTA

**ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK**

*Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak*  
*Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala*

Telefonoa 94 454 07 98 Mungaiate etorbidea, 25  
Fax 94 454 14 12 48100 DERIO

**t i k**  
**t a k**

**EGUNEKO MENUA**  
leherengo platera  
bigarren platera  
postrea  
ogia  
ndaria **9€**

Bestorrene 5. Behea 48100 DERIO  
**T: 94 454 55 55**

**Abelino Arraindegia**

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO  
T: 94 602 75 25-6

**FRUTAK BARAZKIAK**

Produktu ekologikoak  
Hainbat ogi eta pastel!

Gaztelumendi, 3 - behea | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19

**SARRIKOLA OGITEGIA**

Euskal pastela  
Baserriko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84



Deriotik kanpo ere, Txorierrin.

**ban** ANTZONDA

**aikor!** txorierrin abuzteak

**teel totoan**

Ekoizpena ahaztu barik.

ermita eta +

**DERIOTARREN ELIZKANA**

**Derioko ahotsak**



# Abuztuan, oporrik ez Larrabetzun

Larrabetzun abuztuan ez dago oporrik, jaiak dagozalako. Hilaren 12tik 16ra bitartean, andramariak ospatuko ditue; abuztuaren 24an, San Bartolome eguna; eta abuztuaren 30etik irailaren 1era arte, emeteriak. Argi dago: atsedena hartu gura dauanak alde egin daiala herritik!



t: Gaizka Eguzkitza / a: Idoia de Andrés

Hainbat alkartek eta lagunek osatu dabe aurtien Intxurreta jai-batzordea: Itallen bertso eskola, Hori bai, Kukubel, Kukubiltxo, Gure etxea, Txinpasmendi guraso elkarte, Larrabetzuko Racing, Larrabetzuko bizikletazaleak eta Xaker. Funtsezkotzat hartzen dabe parte hartzea, eta jai-batzordean inpliketeko deia zabaldu dabe herrian horregaitik. Gainera, giroa berotzeko, antolatzaileek abuztuaren 15ean lehengo eran jantzita ibiltzeko eskaera egin deusie larrabetzuar eta bisitariari.

Nahiz eta krisi larria egon, jai-batzordearen esanetan, eskertzekoa da Larrabetzuko Udalak jaien aurrekontuari eutsi izana. Kirolak garrantzi handia eukiko dau. Jaietako lehenengo ekitaldia Futbol 7 Txapelketea izango da, eta azkena, herri kirolak. Gainera, mendi-martxea zein duatloia egingo dira eta pelota partidak ikusteko aukerea eukiko dogu: alde bate-tik, neskek paletan jokatu dabe; eta bestetik, Arrese, Cue, Adrián López eta Aspuru pelotari gazteek eskuz binakako partida eskiniko deuskue. Era berean,

## *Besteak beste, kirolak, musikeak eta gastronomia lehiaketek osatzen dabe egitaraua*

kuadrillek olinpiada antzeko bat egingo dabe eta mendizaleak Barrenetxera igongo dira. Hareei lotuta, beste lehiaketa batzuk prestau dabez: asto lasterketea, ugelaxo-toka, briska eta mus txapelketak.

Jai-batzordeak beste lehiaketa bi antolatu ditue: dantza lehiaketea, abuztuaren 14an; eta kantu lehiaketea, aurreko egunean. Honeetan parte hartzeko, baldintza bakar bat dago, lotsarik ez eukitea. Kantu lehiaketeari jagokonez, gainera, ezinbestekoa da euskeraz abestea. Beste mugarik ez dago: banaka edo taldeka abestu ahal izango da, zuzenean edo playback-ean, eta bersinoak egiteko aukerea be egongo da. Ekimen handia da eta igaz 600 lagun bildu ziran plazan.

Zaletuak alde batera itxita, profesional batzuek musika saioak eskiniko ditue:

Mikel Hats, Laket, Euski eta Txertubi taldeek erromeriak egingo ditue. Azken honek dantza ikasteko tailerra be emongo dau. Bestalde, Trapu Zaharrak taldeak Gezurrezkoak kale antzerkia ekarriko deusku. Eta jaiak borobiltzeko, Xabier Amuriza eta Xabi Payá bertsolari handiak entzuteko aukerea eukiko dogu.

Gastronomia atalean, lehiaketa batzuk antolatu ditue: kuadrillek makailaoa, paella eta marmitakoa prestau ahal izango ditue, eta holan erabagiko dogu nor edo nortzuk diran herriko sukaldariak onenak. Gainera, abuztuaren 13an egingo dan herri afariak ongi etorria emongo deutse jaiei, eta herritarrek bilduko ditu plazan.

Larrabetzuko jaiak zabalak dira eta jai-batzordetik guztiei zuzendutako ekitaldiak prestatzen saiatu dira. Ildo horri jarraituz, abuztuaren 16a Umeen Eguna izango da, eta hainbat ekitaldi antolatu ditue hareei begira: bizikleta martxea, joakoak, puzgarriak, goitibeherak... Honez aparte, abuztuaren 14an tirolina jarriko dabe Anguleriko parkean. Eta ziurrenik, gazteenek primeran pasauko dabe falkoneria erakustaldian, abuztuaren 31n.



**LARRABETZU  
TURBERT**  
**EUSKAL HERRIK  
TURBERT**

**ARETXA  
BALA**

ANDRA MARI KALEA  
TEL.: 94 455 84 64



**LARRABETZUKO BATTORIK  
TABERNA - JATETXEAK**

**ESKATASUNAREN ENPARANTZA, 3  
48195 - LARRABETZU (BIZKAIA)**

**BERRESONAGA  
S.L.**

**TELF. 94 455 71 88**



**ETORKI TABERNA**

*Eguneroko menua  
Asteburuetan menu bereziak*

Andra Mari Kalea, 1  
Telf.: 94 455 81 95

48195 LARRABETZU  
(Bizkaia)

INGELESA  
*(Gomendatutako irakasketa)*  
*(E.O.I. eta 2014)*

FRANTZESA  
TXINERA  
EUSKARA  
GAZTELANA


ESKOLA LAQUINTZA  
*(Gomendatutako irakasketa)*  
*(2014 eta 2015)*

ENPRENTZAKO IRAKASTAROAK  
MARA GUZTIAK  
ORDUTEGI MALGUAK



IKASGELA  
AKADEMIA

Aita Patxi Ugaldé, 12 - 48195 Larrabetzu Tel: 615 70 73 61 ikas03oa@gmail.com




**Jatejakea  
SIROCCO**

Errebale, s. behea  
48195 Larrabetzu  
CSN 405 1932

**ASTEBURUETAN**  
ofarjakeak  
Plater kombineatuak  
Eguneko menuak  
Bazkariak / aforiak, eskarguz

**IRUSTA TABERNA**


**EGUNEROKO MENUAK  
eta GAUEZ  
MUSIKA ETA PARRANDA**



LARRABETZU  
Tel.: 94 455 84 77

**Moro's Pub**

**Hnos. Villegas** arraindegia



Andra Mari, 20 behea 48195 LARRABETZU  
Tel.: 94 455 71 42 Bizkaia



**Remirez Instalaciones S.L.**

**ENPRESA INSTALATZAILEA:  
BEROGAILUA, GASA ETA URA**

Tel/Fax: 94 455 82 96 / 606 39 33 46  
E-mail: reinsta@euskalnet.net

Iturrikoetxe, 3  
48195 Larrabetzu (BIZKAIA)



**POLIFENA  
TABERNA**

Andra Mari  
Larrabetzu, Bizkaia  
tel.: 94 455 84 07

**ANDRAMARIAK**

**Abuztuak 12, astelehena**

-17:30: Futbol 7 Txapelketearen kanporaketak.

**Abuztuak 13, martitzena**

-17:00: Futbol 7 Txapelketearen finalaurrekoak eta finala.

-20:00: Herri-afaria.

-22:30: Kantu Lehiaketea.

Abuztuak 14, eguaztena

-17:30: Duatloia.

-20:00: Txupinazoa. Herriko trikitilariak eta txistulariak, Akermari, Paskuala eta Matxin.

-21:00: Erromeria, Mikel Hats taldeagaz.

**Abuztuak 15, eguena**

\*Lehenengo eran jantzita.



**Jai-egitarauak**

-11:00: Kalejirea. Txistulariak, Akermari, Paskuala eta Matxin.

-11:30: Larrabetzuko nesken paleta partida. Ostein, eskuz binakako pelota partida. Arrese-Cue / Adrian López-Aspuru.

-12:00-18:00: Tirolina, Anguleriko parkean.

-13:30: Pintxo poteoa (herritarrek egin dako pintxoak).

-19:00: Asto Lasterketea.

-23:00: Dantza Lehiaketea. Ostein, herriko dj-ak, plazan.

**Abuztuak 16, barikua**

**Umeen eguna**

-11:00: Mendiko Bizikleten III. Martxea, ume, gazte, zahar, heldu eta ustelduei zuzendua.

-12:00: Kalejirea. Herriko txistulariak, Akermari, Paskuala eta Matxin.

-12:30: Umeen jokoak, Kukubel taldeagaz.

-14:00: Umeentzako bazkaria.

-14:30: Makailao pil-pil erara Txapelketea.

-15:30: Umeentzako puzgarriak, igerilekuan.

-17:00: Ugelaxo-toka Txapelketea, Sirocco tabernan.

-18:00: Goitibeherak.

-Ostein, kalejirea plazaraino: herriko txistulariak, Akermari, Paskuala eta Matxin.

-19:30: Kuadrillen arteko jokoak.

-22:00: Erromeria, Laket taldeagaz.

-23:00: Kale antzerkia. Gezurrezkoak, Trapu zaharrak taldearen eskutik.

-Ostein, erromeria, Laket taldeagaz.

**Abuztuak 24, zapatua**

**San Bartolome**

-14:30: Paella Txapelketea.

-17:00: Briska Txapelketea.

-17:30: Ugelaxo-toka Txapelketea.



**EMETERIEK (GOIKOELEXALDE)**

**Abuztuak 30, barikua**

-12:00: Txupinazoa eta kalejirea. Herriko trikitilariak, Akermari, Paskuala eta Matxin.

-14:00: Marmitako Txapelketea.

-17:00: Mus Txapelketea.

-19:00: Barrenetxera igoera.

-20:00: Erromeria, Euski taldeagaz.

**Abuztuak 31, zapatua**

-12:30: Kalejira. Herriko txistulariak, Akermari, Paskuala eta Matxin.

-13:00: Bertsolariak. Xabier Amuriza eta Xabi Payá.

-17:00: Briska txapelketea.

-19:00: Falkoneria.

-21:00: Dantzan ikasteko erromeria, Txertubi taldeagaz.

**Irailak 1, domekea**

-12:30: Kalejirea. Herriko txistulariak, Akermari, Paskuala eta Matxin.

-13:00: Herri kirolak bertoko kirolaria-kaz.

**ZURAS**  
Estetika eta masajea  
Alta Pabli Ugalde, 14 behea  
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

**Peukeria**  
Estetika  
94 455 81 44  
Angulen 2. behea Larrabetzu-Bizkaia

Miguel Angel Lekue, garraiolaria  
Larrabetzu  
656 786 744 94 455 80 20



# ZORIONAK!



Zorionak aita, Amaia eta Ainhoaren partez. mariskada, noizko?



Zorionak Ana eta Jorge! Gure artean dago Alex txikia...



Ku-ku! Gure etxeko sagutxuak abuztuaren lehen urte bat beteko dau. Zorionak maitia, zure gurasoen partez!



Munduko amamarik onenak abuztuaren 4an urteak beteko dauz, ZORIONAK AMAMA ESTHER! Gontzal, Udane, Larraitz eta etxeko beste guztien partez.



Mila esker bihotz-bihotzez ahaztu ezinezko eguna posible egiteagatik. Janire eta Arnaitz.



Zorionak mutil handi! Horrela jarraituz gero dantzari eta trikitilari fina izango zara benetan... Zorionak familia guztiaren partez uztailaren 18an 6 urte bete dituzulako.

## BIDALI ZURE ARGAZKIAK

- Argazki txikia: 15 euro
- Argazki handia: 25 euro

Aikor!lagunentzat %20ko deskontua

Argazkia eta testua:

- Hilaren 15a baino lehen agindu
- aikortxori@aikor.com helbidera

# Lezamarrek lezamarrentzat

Herriko jaiak horrelakoak dirala esan dabe Basobaltz jai-batzordeko kideek. Izan be, herritar guztiek disfruteteko moduko egitaraua prestau dabe, egunez zein gauez. Aitatu daben moduan, "udeari agur esateko jai-giro polita sortuko da Lezaman". Beraz, badakigu non daukagun hitzordua.

a: Asier Sáenz

Txupinazoa irailaren 6an botako da, baina Lezamako Mugetatik mendi ibilaldiak eta San Antolin Egunak motorrak berotuko ditue aurreko egunetan. Asteleheneko herri bazkarirako txartelak hiru eurotan jarriko dira salgai, alde aurretik erosten badira; eta bost eurotan, bazkariaren egunean bertan. Bazkaldu ostean, mus eta briska txapelketak izango dira eta saritzat herriko produktuak emongo dira.

Jai ei hasiera ofiziala emon baino lehen, Futbito Txapelketearen finala jokatuko da. Bertan parte hartzeko, hiru baldintza bete behar dira: parte-hartzaileak 18 urtetik gorakoak izatea, lezamarrek izatea eta taldeak emakumezkoek zein gizonezkoek osatzea. Izena emotea abuztuaren 25a baino lehen egin behar da basobaltzjaibatzordea@gmail.com helbidean. Irabazleek 70 euro jasoko dabe, herriko tabernetan gastetako. "Egun horretan be badago beste ekintza bat azpimarratzea merezi dauana: Alemaniako talde batek Kurutze taldegaz batera eskinitako dauan dantzen agerraldia". Ohikoa dan ez, barikuan be Mozorro Eguna izango da. "Aurtengo gaia "munduko kulturak" da eta txosnak eta karpa-gunea gai horren arabera apainduko doguz". Umeen lehiaketaren irabazleari 30 euro emongo deusie saritzat herrian gastetako; eta 100 euro, nagusiari. Barikuan zein zapatuan odolosteak eskinitako dira tabernetan eta jatetxeetan.

"Zapatuan herritik ibiliko dan tren bat ipiniko da, umeek zein helduek erabili ahal izango dabena. Helduen kasuan, trenak bidaiak egingo ditu txakolindegiatar". Goitibeheren jatsierea arrastian egingo da eta goitibeheraklezama@hotmail.com helbidean emon behar da izena.



Domekan, BTT lasterketea eta abesbatzen emonaldia egongo dira. Eta Marmitako eta Tortilla Txapelketak, bertsolariak giroturik, 12:00etatik aurrera bertso-saio ibiltaria eskinitako dabe-eta. Prestautakoa herri bazkarian jango da. "Igaz 300 lagun batu ginan eta aurten lagun-kopurua errepiketea espero dogu. Txapelketetan parte hartzen ez dabenek be badaukie gugaz bazkaltzeko aukerea", esan dabe Zorritzetan alkartetik. Lekua hartzeko txartelak euro batean ipiniko dira salgai dendetan eta tabernetan. Arrastian, euskal kantak eta antzezlan bat egongo dira.

Kurutzekoak be indartsu

Batez be, BEZaren igoera nabaritu badabe be, jai-batzordeak uste dau egitarau oparoa diseineteka lortu dabela. Halan,

## Irailak 1, domeka

-08:30: VIII. Lezamako Mugetatik mendi ibilaldia.

-10:00: VIII. Lezamako Mugetatik lasterketea eta ibilaldi txikia.

## Irailak 2, astelehena. San Antolin

-11:30: Trikitilariak.

-11:30: Mezea. Ostean, kopaua.

-14:30: Herri bazkaria (paella), Lezama Saretzen alkarteak diruz lagundua. Ostean, Briska eta Mus Txapelketak.

## Irailak 6, barikua

-18:00: Futbito Txapelketearen finala.

-18:00: Eskupelota partida profesionalak, frontoian. Antolatzailea: Pelota alkarteak.

-19:30: Txupinazoa. Ostean, Kurutze dantza taldearen eta Alemaniako Volstanzgruppe Frommerh dantza taldearen emonaldia.

-22:00: Txosnak zabaltzea.

-22:00-24:00: Mozorro Lehiaketea.

-24:00: Kontzertuak: Kartzarot + Oxabi.

## Irailak 7, zapatua. Odoloste Eguna

-11:00-14:30: Umeen jolasak: mitologia tailerrak + puzgarriak + Gorritiren animaliak.

-12:00: Urteera, herriko hiru upeltegitar. Lezama Saretzen alkartearen eskutik.

-16:30: Goitibeheren jatsierea.

-17:00-18:30: Tren txu-txu. Lezama Saretzen alkartearen eskutik.

herritar guztiei zuzendutako ekintzak izango dira. Besteak beste, Kartzarot, En Tol Sarmiento eta Hesian taldeek ipiniko deuse musikea gauei.

Beste alde batetik, irailaren 13tik 15era arte, idi-probak, mus txapelketak, odolosteak, erromeriak, umeen jolasak, gastronomia, kirola, kopauak, suak... egongo dira Kurutze auzoko jaietan. Sukalki Txapelketea zapatuan egingo da. Parte-hartzaileek 40 euro ordaindu beharko dabe eta horren truke jasoko ditue mahai bat, sei aulki, 3 kg okela, 2 kg patata eta ogi bat. Txartelak irailaren 10era arte egongo dira salgai auzoko denda eta tabernetan. Zapatuan jaien inguruan diseinutako kamiseten desfilea egingo da. Irabazleak 60 euroko diru-txartela jasoko dau saritzat, Lezaman gastetako.

## Jai-egitarauak

-20:00: Mariatxiak.  
-22:00: Txosnak zabaltzea.  
-24:00: Kontzertuak: En Tol Sarmiento + Hesian + Trikizio.  
Afaltzeko, odolosteak herriko tabernetan eta jatetxeetan.

### Irailak 8, domeka. Andra Mari Eguna

-09:30: VI. Andra Mari BTT Lasterketea. Zorribike taldeak antolatua.  
-12:30: Mezea. Ostean, Ekidazu eta Elorrioko abesbatzearen emonaldia.  
-14:00: Kuadrillen herri bazkaria: marmitakoa eta patata tortilla. Zorritzetan euskera alkarteak antolatua.  
-17:00-19:00: Euskal kantak: Duo Deno bikotea.  
-19:00: Antzerkia, Kultura Aretoa, Ausartak antzerki taldearen eskutik.

### Irailak 9, astelehena

-12:30: Mezea.  
-14:00: Nagusien bazkaria, jubiladuen etxean.

### Irailak 10, martitzena.

#### Bola-Lekuko jaiak

-12:00-13:30: Izena emotea Paella Lehiaketan.  
-14:30: Paellak aurkeztea eta sariak emotea.  
-17:00: Umeen jolasak.  
-18:30: Txokolatadea.  
-19:30: Erromeria, Hotza taldeagaz.



### KURUTZEKO JAIAK

#### Irailak 13, barikua

-Txupinazoa eta jaien hasierea.  
-20:00: Idi-proben XXX. Lehiaketea.  
-20:00: Mus Txapelketea, Zigoun eta Gaztedik antolatua.  
-21:00: Odolosteak, tabernetan.  
-22:30: Erromeria, Alai taldeagaz.

#### Irailak 14, zapatua. Santa Kurutze

Txosna goiz osoan zehar zabalik, ermitako landan.  
-09:00: Sukalki Lehiaketearen materiala banatzea.  
-11:00: Umeen jolasak.  
-11:30: Izena emotea Tortilla Lehiaketan.  
-12:00: Mezea.  
-14:00: Sukalkia eta tortillak aurkeztea, eta sariak banatzea.  
-14:00: Umeen eta begiraleen bazkaria.  
-17:00: Gurasoentzako jolasak eta herri kirolak.

-18:00: Mus Txapelketearen finala, ermitako landan.

-19:00: Izena emotea, Sorgin Txapelketan.  
-19:30: Sorgin Txapelketako sariak banatzea.  
-19:30: Jaietako kamiseten desfilea.  
-20:00: Solomo eta hirugihar ogitar-tekoak.  
-20:30: Arrantxo-abestiak, Guanyats Despullen taldeagaz.  
-21:00: Sorgina erretzea, suak eta txokolatadea.  
-22:30: Berbena, Txinparta taldeagaz.

#### Irailak 15, domeka

-11:00: Futbito partidak.  
-12:00: Mezea.  
-12:30: Dantzen agerraldia, Kurutze dantza taldearen eskutik.  
Kopaua eta jaien amaiera.

**BASALBEITIKO TXAKOLINA**  
Berkalki Txakolina  
Geltokiaren 37 (LEZAMA)  
94 455 61 46

**LEJARRENE JATETXEA**  
Geltokiaren 102 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

**kalam**  
Laser lipolitikoa  
Photon  
HHP terapia  
Presoterapia  
Aurpegi-tratamenduak  
Gorputz-tratamenduak  
Aretxalde, 65 • 48196 Lezama • 94 401 42 43

**LOTERIA LEZAMA**  
BONOLOTIA  
LOTERIA PRIMITIBOA  
1-N-2  
SARITZARRA  
EUROMILIOIAK  
GABONETAKO ETA ERREGETAKO  
LOTERIEN ERRESERBIAK  
ZERBITZUA, ENPRESENTZAT,  
TABERNENTZAT, ETAB  
ARETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAI) • TELEFONUA FAX: 94 455 64 87

**Club Hípico Aretxalde**  
Pony club - Zaldiketa ikastaroak  
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua  
Salto - Txangoak - Animalaren heziketa  
Telefona:  
IBON - 659 90 75 88  
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

t/a: Gaizka Eguzkitza

Zistitis interstiziala gaixotasun kronikoa eta autoimmunea da, hau da, nor bere buruari eragiten deuto. Puxika-pareta handitu egiten da, eta, denporaren poderioz, puxika gero eta txikiago bihurtzen da. Gaixotasunaren ondorioz, pazientea sarritan joan behar izaten da komunera. Medikuek ez dakie gatxa nondik datozen, ezta tratamendua zein dan be. Gaixotasun arraroa da eta oso lagun gitxik pairatzen dau. Batez be emakumezkoek izaten dabe gaixotasun hau. Hareetako bat dogu gure artean, Garbiñe Elorriaga lezamarra.

Garbiñek 59 urte ditu eta orain dala 14 urte diagnostikatu eutsien zistitis interstiziala. "Mina sentidu neban pelbis inguruan eta medikuarenera joan nintzan. Berak bakterio-kultura egin eutsan eta zistitisa zala esan eutsan. Tratamendua egin neban, antiinflamatorioak hartu nebazan, eta amaitu eta gero, mina sentiduten jarraitzen neban. Orduan, probakaz hasi nintzan eta mediku batetik bestera ibili nintzan". Garbiñeren berbetan, diagnostikoa lortzea oso gatxa da.

Garbiñek muntaketa-kate baten egin eban lan, baina itxi behar izan eban. Eskerrak lanerako ezintasun iraunkorra emon eutsien. "Gaixotasunak lur jota ixten zaitu: min itzela dozu pelbisean, nekatuta zabilz, ezin zara jezarrita egon, ezta zutunik be... Eta gatxena da komunera sarritan joan behar zarala, normalean, 30 aldiz egunean. Gauean 6-8 aldiz altzau behar izaten naz. Beraz, ezin dot lorik egin, eta ez dot atsedena behar dan moduan hartzen".

Pazienteen txiza egiteko gogoia premiazkoa da, berehala joan behar dira komunera. Horrek baldintzatzen dau beren bizitza. "Bilbora joaten nazan bakotxean, ezin dot metroa hartu bertan komunik ez dagoalako. Eta trena edo autoa hartu behar badot, edo edozein bidaia egin behar badot, ibilpidea ondo kalkulau behar dot komunera sarritan joan behar



## Egunero, 30 aldiz komunean

izango dodalako". Garbiñeren eretxiz, gizartea ez dago prestatuta gaixotasun honetarako. "Lehen komunak herri guztietan egozan, baina gaur egun ez dagoz".

Andra lezamar honek danetarik probau dau, gaixotasunari aurre egiteko, baina ezerk ez deutzaz nekea eta mina arintzen. "Istilazinoak, hau da, botikak tantaz tanta hartu dodaz; Amerikan asmautako pilula bat, puxikaren mintza indartzeko; kortisona, antiinflamatorio indartsua; aku-

puntura moduko tratamendu alternatibok; pelbis-zorua indartzeko ariketak; botoxa ipini eusten, muskuluak lokartzeko...". Guztiak alperrik.

Elikadurari jagokonez, Garbiñek jarraibide batzuk hartzen ditu kontuan. Esate baterako, ez dau zitrikorik hartzen, eta ahalegintzen da gauean likidorik ez hartzen. "Gatxa da asmatea, gaixotasun honen inguruan hainbat eragile dagozala-ko. Egunaren arabera, hobeto ala okerra-

**AM**  
FORMACIÓIN Y TRANSACCIONES

—INGURU ESKOLA  
—MASA GUSTUK  
—AZTARKE TA OFIZIALAK  
—GASTRO PRESTAKUNTZA  
—MESTIZOIBE ERKOKA  
—PRESTAKUNTZA ENPRESETAN  
—ERKOLAZ KANPICO KLASAK  
—ITZULPEN ZERBITZUA

www.am-formacion.com info@am-formacion.com

Garaioltza 120 D  
48196 LEZAMA  
T: 94 455 64 89

Eremuterri 16  
48150 SONDOKA  
T: 94 453 64 08

**GOIKO TABERNA** Taberna-jatetxea  
Emiliano

Atera berriak asteburuetan • Egurko menu eta larta  
Ezaro erremateko platerak • Jaurerzoki eta ezkerzak  
Biskala asteburuetan • Jantoki zaharrik

B: Garaioltza, 1 • Tfn. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Biskala

**KIMA**  
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Goitoltza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77  
48196 LEZAMA (HIZKALIA)



go nabil, eta askotan horrek ez dau zerikusirik egin edo hartu dodanagaz". Burua okupeta mantentzeko, zaletasunak lantzen hasi zan, zeramika eta egurra lantzen, esate baterako.

#### Alkartea

Zistitis interstiziala gaixotasun arraroa da; halanda be, apurka-apurka badabilz ikerketak egiten. Gaixoeak ACACI alkartea sortu dabe Katalunian, eta laster beste bat eratuko dabe Madrilan. "Taldeak laguntza aparta eskaintzen deusku: alde batetik, alkartekoek azken ikerketen barri emoten deuskue; eta bestetik, gurea gaixotasun arraroa danez, oso informazio gitxi dogu, eta oso aberasgarria da beste gaixo batzuk hartu-emonetan ibiltea, norberaren esperientziak alkarri adierazoten deusguzalako".

Euskal Herrian ez dago talderik eta horregaitik dabil Garbiñe Kataluniakoakaz. Beragaz batera, Estadu osoko 200 lagun dira ACACI-ko kideak. "Horrek esan gura dau 200 gagozala identifikatuta, baina egon gehiago dago. Gaixotasun horrek lotsa emoten dau, eta batzuek eba-

*"Gaixotasunak lur jota  
ixten zaitu: mina dozu,  
nekatuta zabilz, ezin  
zara jezarrita egon,  
ezta zutunik be..."*

kuntza egin gura izaten dabe, puxika kentzeko. Etorkezunari begira, eta beste biderik ez badago, beharbada, neuk be horrelako zoezer egin beharko dot, baina burrukatu gura dot hori gertatu ez daiten".

Garbiñek gaixotasunaren beraren kontra ez eze, gizartearen ulertezintasunaren kontra be ibili behar dau lehian. Batzuetan, "aurpegi ona dau", edo "ikusit dot herrian paseotxua emoten, nasainasai" esaten dabe. "Honelakoak entzuten dozuzanean, emoten dau zalantzan jarten dabela gaixorik zagozala. Eta horrek amorruea emoten dau". Bai, arpegian islatu ala ez, Garbiñe gaixorik dago, zistitis interstiziala dau.

# AZOKA TXIKIA DERION



Sollube  
kalean  
(euria bada  
frontoian)  
10:00 /14:00

Saldu, erosi,  
trukatu  
gura baduzu  
**erdu**



#### Taberna kolaboratzaileak:

Akelarre  
Alboka  
Devons  
Adarve  
Trippy  
Sugoi  
Haizea  
Pozgarri  
Amaiketako  
Nagusien etxea  
Bizkargi  
Mendia



**Derio**

t/a: Itxaso Marina

**Hiru hilabete eskas pasatu dira eta liburuaren hirugarren argitaraldia egin da. Nondik dator Manuelaren arrakasta?**

Egia esan, leku batetik bestera nabil liburu aurkezten eta horrek badu bere eragina. Bestalde, eta nobela irakurri dutenek esan didaten moduan, oso istorio hurbila da. Alderdi historiko garrantzitsua ere badu, XVIII. mendean Euskal Herrian zelan bizitzen zen kontatzen delako, zelakoa zen herritarren egunerokotasuna... Eta, noski, Manuela ere badelako erakartzen duen pertsonaia.

#### **Nor da Manuela?**

Manuela eta bere neba, Domingo Narciso, Allende familiakoak dira eta Goredolako baserri batean bizi dira. Neba Espainia Berrira, Mexikora, doa dirua egitera eta liburuan bakoitzak daraman bizitza azaltzen da. Era berean, kontakizun kostunbrista denez, saiatu naiz komunitate edo taldearen inguruan garai hartan zegoen ideia islatzen, eta beste familia batzuen gorabeherak ere batu ditut liburuan. Bidelapurak daude, hainbat abentura eta bidaia, eliza baten eraikitze-lanak... Eta horien guztien artean, Manuela indar gehien duen pertsonaia da, bere historiagatik eta adoreagatik... Ohiturei eusten saiatzen den aldi berean, horiek hautsi nahi dituelako, eta gizonezkoen eremuetara pixkanaka-pixkanaka, eta bere aukerak kontuan hartuta, sartzen doalako.

**Nobela bihurtu dena ikerketa zen hasiera batean.**

Charo Lanzagorta antropologo euskal-mexikarra da, eta bere ahotik jakin nuen Mexikoko lehenengo matxinatuak euskaldunak izan zirela, Allende, Aldama eta Abasolo familiakoak hain zuzen ere. Ikertze-lana hasi genuen, baina oso gai mamitsua zen eta nobela idaztea otu

*“Mexikoko lehenengo matxinatuak euskaldunak izan ziren, Allende, Aldama eta Abasolo familiakoak”*

# “Erakartzen duen pertsona

INMA ROIZ | idazlea

Inma *Beitu* Derioko aldizkariaren erredakzio burua da. Kazetaria izateaz gainera, Antropologian lizentziatua ere bada, eta orain ibilbide berri bati ekin dio: nobelagintza. Apirilean bere lehendabiziko liburu eman zen argitara, *Manuela*.

zitzaidan. Hasierako ideia aipatutako familien historia batzea zen, baina Manuelaren datu biografikoak ezagutu nituenean, pertsonaiak guztiz erakarri ninduen. Baserriko emakume xumea den arren, indar handiko emakumea delako, grina asko dituen, komunitatearen ahotan dagoena eta, besteekin alderatuta, bestelako izaera duena.

**Liburuan egia eta fikzioa uztartzeko dituzu. Zelan izan da datuak batzeko lana?**

Bai, Manuela, esate baterako, benetan existitu zen emakumea da eta liburuan batu diren bere bizitzaren gertaera batzuk ere benetakoak dira. Baina, noski, bere psikologia, inguruarekin duen harremana... fikzioa da. Ikerlan itzela egin da artxibategietan, historialarien lana irakurri... Bidaia ere egin nuen Mexikora eta parrokiako agiritegiak ikusteko aukera eduki nuen bertan. Txundigarria izan zen, abizen guztiak euskaldunak zirelako. Etxeak oraindik daude zutunik eta bisita-



# ia da Manuela”


tu egin nituen. Allenderen etxea, adibidez, museoa da gaur egun. Nire ustez, nobelak indar handiagoa hartu zuen Mexikotik itzuli nintzenean.

## Oso egoera ezberdina zegoen Euskal Herrian eta Mexikon XVIII. mendean.

Hura mende eraldatzailea izan arren, gizartea nahiko itxia zen, gizarte-inposizioak eta ohiturak nagusi ziren, iraupeneko ekonomia zegoen... Eta euria ari zuen, hotza zegoen... Mexikon, berriz, kolorez betetako beste mundu bat zegoen, aukera asko eta hara joaten zirenek botere-karguak hartzen zituzten. Argi-ilun horrekin jolastu naiz.

## Domingo Narciso Mexikora joan zen dirua egitera, eta gaur egun ere gazte askok erabaki hori hartu dute. Hiru menderen ostean, eta ezberdintasunak nabariak direla kontuan hartuta, bada- go parekotasunik?

Bai. Migrazio-prozesuak antzekoak izaten jarraitzen duten beharizanen eta ego-



eren ondorioak dira: diru beharra. Era berean, helmugako herrialdeetan oso sendoak diren gizarte-sareak sortzen dira, eta migratzaileak sare horiek dau- den lekuetara joan ohi dira. Eta, azkenik, jatorrizko herriarekiko dagoen pertenen- tzia-sentimendua oso handia da.

*“Euskal Herri eta Mexikoren arteko argi-ilunekin jolastu naiz”*

## Manuela zure lehendabiziko eleberrria da; zelan izan da hura idazteko prozesua?

Ezin hobea! Familiako biografia bat banuen idatzita, eta beti nahi izan dut nobelaren bat idaztea. Saiakerak egin arren, ez nuen hura idaztea lortzen... eta, azkenean, istorio batekin egiten duzu topo, idazten hasten zara eta harrapatu egiten zaitu. Sormen-prozesua oso polita da, bat-batean pertsonaia berriak sortzen direlako. Horiek badoaz indarra hartzen eta harritu egiten zaituzte, nahiz eta idaz- lea zeu zaren, haiek direlako zein bide hartu behar duten erabakitzen dutenak. Eta noski, momentu gogorak ere badau- de... baina, hala ere, uste dut nobela gehiago egongo direla.

**aek**  
**Euskara praktikoa**  
Txorierriko AEK

**aek** | Garena ikasteko  
para entendemos  
pour se comprendre

www.aek.org  
902 362 294

*Zugandik gertu  
Matrikula zabalik  
irailaren 26 arte*

**Txepetxa euskaltegia**  
94 454 39 67 / 607 598 794  
txepetxa@aec.org

# Merkataritza bizi-bizia

Danerik paraje! Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako Elkarte Profesionalak "Zabalik ala itxita, nola nahiago?" kanpaina jarri du abian. Egitasmo honen helburua da derioztarrak konturatzea zein garrantzitsua den herrian erostea, Ion Otaolea elkarteko presidentek aipatu duenez, "merkataritzak bizitza sortzen duelako".

Kanpainarako diseinatu den kartelak errealitate bi azaltzen ditu: pertsiana betiko itxi behar izan duten negozioen argazkien bidez irudikatu dute errealitate bat, eta zabalik dauden negozioen argazkien bidez, bestea. Azken irudi horiek mugimenduz eta kolorez beterik daude, bizi-biziak. "Lehenengo errealitatean agertutakoa ez gertatzea lortu nahi dugu kanpaina honen bidez. Merkataritzarik ez badago, herriko bizitza ere desagertzen delako. Eta merkataritzak bizitza eta aberastasuna ekartzen dituelako".

Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako elkartearen barruan 70 negozio inguru daude. Krisialdian gaude eta gure negozioak ez dira uharte bat, kontsumoak behera egin du guztietan, neurri handiagoan edo txikiagoan. Ion Otaolearen esanetan, kontsumitzaileak ez dauka zertan irten Deriotik erosketak egiteko, herrian bertan duelako denetarik. "Baditugu ile-apaindegiak, jostailuak, alokatzeko autoak, aseguru-agentziak, aholkularitza-enpresak, frutategiak... Gainera, badira hiru ikur bereizten gaituztenak: kalitatea, prezio onak eta hurbiltasuna".

Otaoleak azaldu duenez, merkataritza-guneek kalte egin diote herriko merkataritzari. Baina uste du, jendea bere herriko saltokietara hurbilduko balitz, sorpresa ederra hartuko lukeela ikusita nolako abantailak dituen herrian bertan erosteak. "Kalitate-prezio erlazio ezin hobea eskaintzen dugu eta, era berean, oso abantaila handiak eta finantzazio interesgarria eskaintzen ditugu produktuak ordaintzeko orduan. Oso inportantea da jendea gugana hurbiltzea eta hau guztia ezagutzea".

## Aberastasuna

Merkataritza-guneen alde erakargarrienetako bat prezio merkea da. "Guk ere oso prezio interesgarriak ditugu. Dena dela, herriko saltokietan erosten dugune-



*Herriko saltokiek  
prezio interesgarriak  
eta finantzazio  
ezin hobea  
eskaintzen dituzte*

an, kontuan hartu behar dugu negozio baten atzean familia bat dagoela eta familia horrek soldata duin bat behar duela bere negozioari eusteko, bizitzeko eta herrian kontsumitu ahal izateko". Izan ere, dena dago elkarri lotuta. Haragia auzoko harategian erosten badugu, harakinak herriko zapata-dendan erosiko dituz zapatak, zapataria herriko taberna batean hartu ahal izango du kafea, eta tabernariak... Hau da, bizitza eta aberastasuna sortuko dira. "Eta horrek eragina izango du Derion. Baita Txorierrin ere. Zelako soldata du merkataritza-gune bateko denda

bateko langileak? Guri interesatzen zai-guna da erosteko ahalmen duina duten pertsonak egotea, horiek ere herrian erosi ahal izateko eta aberastasuna sortzeko".

Danerik Paraje! elkarteak beherapen eta sustapen ederrak egiten dituzte urte osoan, derioztarrak eta txorierritarrak herrian erostera animatzeko. Horrela, bada, ama bat eta bere alaba oporretara bidali dituzte uda honetan. "Egia esateko, oso dinamika bizia dugu promozio-kanpainen haritik: oparitxoak, prezio bereziak, beherapenak... Gabonei begira, adibidez, deskontuak egingo ditugu eta saskiak oparitu ditugu".

Merkealdian gaude eta mugimendua ikusten da gure saltokietan. Eguraldi onak ere animatu ditu herritarrak erostera. "Inportantea da jendea gugana hurbiltzea eta gu ezagutzea. Webgune bat sortu dugu: deriocom.com. Han guri buruzko informazioa topatuko dute, nortzuk garen, zeintzuk diren gure dendak eta zerbitzuak, sustapenak...". Herria bizibizirik mantentzen dezagun, beraz.



# ZABALIK ALA ITXITA, NOLA NAHIAGO?



## Eskerrik Asko Derion Erosteagatik



# ZABALIK ALA ITXITA, NOLA NAHIAGO?

# 3Dko inprimaketak



t: Xabier Díaz, BTEkeko zuzendaria

Txillida zein Oteizaren obra handiak ikusten ditudanean, tailarrera zer bidaliko ote zuten pentsatzen hasi naiz askotan. Planoak? Maketak? Biak? Eta maketak bidaltzen bazituzten, nork eta nola egiten zituen? Hegazkin batek airean izango duen jokaera aurretik jakiteko ere, haize-tuneletan sartzen diren maketak egiten dira. Eta zubi batzuen kasuan ere bai, haizea dabilenean zelako erantzuna izango duten jakiteko.

3D inprimagailuak prozesu horiek erraztu eta orokortzera datoz. Inpresora hauei esker, nahikoa da ordenagailuan egin nahi duzun maketa edo prototipoaren 3Dko diseinua edukitzea. Ohiko inpresorekin egiten den bezala, inprima-

tzeko botoia sakatu eta, listo!, inprimagailuak objektua egingo du.

## Niretzako dira?

Bizikletaren eskulekuan sakelako telefonoa ipintzeko euskarri baten bila zabilta? Gabonetako arbola zeuk diseinatutako bolatxo apaindu nahi duzu? Egongelako lanparari itxura berezia ematea pentsatu duzu? Neurria egindako botoiak... eskultura, erliebe, eraikin zein pertsonaien erreplikak... Galdu zitzaizun xake zaldi beltza! Zergatik erosi norberak egin dezakeena?

Interneten badaude hainbat leku, zeinetan doan zein ordainduta aipatutako ereduak lor baitaitezke. Eta milaka eredu gehiago. Gainera, norberak edita ditzake ereduak eta moldaketa errazak egitea ez

da batere zaila. Oraingoz duten arazo bakarra betikoa da: prezioa.

Inprimagailuak 700 eurotik aurrera lor daitezke. Merkeagoak direnak be badaude, baina muntatu behar dira eta, hain zaila ez den arren, abildade pixka bat eskatzen dute. Gainera, ohikoek tinta erabiltzen duten bezala, 3D inprimagailuek plastiko berezi bateko hari batzuk erabiltzen dituzte objektuak egiteko eta horiek ere ez dira merkeak.

Dagoeneko, saiakerak egon dira medikuntza arloan protesiak inprimagailu hauen bidez egiteko, eta esaten da egun batean 3D inprimagailuak eta zelula amak erabilia organoak ere egingo direla. Arte munduan dituzten aplikazioak ere asko dira. Baina, nire ustez, garrantzitsua da manufaktura edonoren eskura jartzen dela. Edonor gai izango da behar duena edo bere buruan imajinatu duena egiteko: artea, diseinu bat, apurta zaion zerbait, 3D eskaner baten bidez eskaneatutako objektu bat, katalogo batetik jaitsi dena, ordenagailuan sortu eta editatu dena... Teknologia hauekin, Calatrava arkitekto famatuari kostatuko zaio maketa batengatik berriro milioi eta berrehun mila euro kobratzea!

## RepRap proiektua

Proiektuak bere burua erreplikatzeko gai den makina bat lortzea du helburu. Oraingoz 3D inprimagailu bat lortu dute, bere plastikozko pieza guztiak erreplikatzeko gauza dena, eta bidean daude alde elektronikoak eta metalikoak egiteko gai izango den makina ere lortzeko.

Elkarlanean oinarritzen den proiektu hau martxan jarri zenetik, hainbat eredu kaleratu dituzte eta erabiltzen diren hardwarea eta softwarea libreak dira. Bostehun eurotik aurrera, zure esku dago halako inprimagailu baten atalak jaso eta muntatzea. Eta, proiektuaren sustatzaileek esaten duten moduan, beste lagun batentzat halako inprimagailu bat egitea.

**GOXO-GOXO LOHITZUN**

Arretzeldex zabalik  
Ogiz egutero  
Postalek aukeragarri

Garaiozta, 77c  
48100 Lezama  
94 450 42 72  
goxogoxolohitzun@hotmail.com

48100 LEZAMA Buzia      Carretera auton, 36

**S.A.T. LEGU**

BEHATZAILAK ATX BESO-LINDEAK

F: 94 455 64 17      T: 94 455 61 98

**ZAMUDIO MOTOR** IDENTICA

94 452 1616  
94 452 1624

Pol. Torrelagoiti  
Pab. 6, Bloque 3  
48170 ZAMUDIO  
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:  
TXAPA ETA PINTURA

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Oraindik ekiten ote diote diarioa idazteari behinola nire ikasle izan zirenek? Badakit batzuek jarraitzen dutena, eurek esaten didate-eta. Gainera, harritu egiten dira orain hogeita hamar urte idatzitako testuekin, ezen hor agertzen baita treneko txartela pezetatan idatzirik edo gaztaroko olerki maitemindua -irribarrea sortzen diena-.

Gaur ere, bizitzako ikasgelan elkartuko banitu, antzera mintzatuko nintzaieke: Zergatik ez izan munduko antzerkian protagonista? Ez al gara bizi aldamene-

# Egunerokoa idatzi, "auzoan burua" bizi

koaren kandela-argiari begira? Zergatik ez biztu geurea eta putz egin? Idatz ezan hik heure historia!

Nik neuk honelakoak ditut izkiriaturik irakasle-liburuko oharretan -batxilerreko A ereduko ikasleenean- 1994koan: ikasleok, Behin batian Loiolan kantua entzunik, egin itzulpena.

Behin batian Loiolan erromeria zan, hantxe ikusi nuen neskatxa bat plazan.

Ikasle baten itzulpena:  
"Empezó en una jaula en Roma.  
Allí vio a una niña en la plaza".

(Loiola kaiolarekin nahastu du eta abar).

Gure egunotan, XXI. gizaldiko pertsona asko "burua auzoan" dela bizi da: Espainiako politikakeria ustelen menpe; inoren zeresanak anesthesiatuak; telebistak dioenaren pentzuan edo interneti lotuta. Hau da, ez norberarengan oinarriturik, ez eskal nortasunean finkatuta. Berez, zergatik edaten ote dugu beti Partzuergoko ura? Ez al du merezi Bartolo eta Maritxurekin iturrira joan eta txorrotik ura edatea, hau da geure iritzitik?

Zuk irakurle, zeure bizitzako arantza-loreak ekartzen badituzu egunerokora, gogotik idazlumara, izango duzu zer konstatu seme-alabei nahiz ilobei -zein irakurleei- hemendik 30 urtera.

(\*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa



**TXORIERRI MARMOLDEGIA**  
Sukalde eta bainugeleako harriak  
Fatxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti Ind., 7 B P. - 2. nabea  
48170 Zamudio (Bizkaia)  
T./F.: 94 608 01 41-2

LIBURUDENDA PAPERDENDA  
**ZAMUDIO**

Gorbea kalea, 5  
Telefono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**Bai Euskarari**  
**urrats biziak**

## Etxeko sukaldaritza

## Erromesaren tartea



*Maite Lekerika, sukaldaria*

**Osagaiak:**

- Gurin apur bat
- Hostore-orri bat
- Kilo erdi almendra eihoa
- Kilo erdi azukre
- 6 arrautza
- Koilarakada txiki bat kanela
- Kopa bat ardao goxo
- 200 g glas azukre

**Prestateko errea:**

Tartak egiteko molde bat gurinagaz igurtziko dogu, eta bertan hostorea zabalduko dogu. Ontzi baten almendrea, azukerea eta kanalea ipiniko doguz, eta ardao eta arrautzak gehituko doguz, banan-banan. Osagaiak ondo nahastuko doguz eta nahastea hostorearen gainean botako dogu. Laban 175 gradutan eukiko dogu harik eta tartea egiten dan arte. Labatik atera eta hotzitzen danean, glas azukerea botako dogu gainerik.

## Makailao eta laranja entsaladea

**Osagaiak (lau laguntzat):**

- 100 g makailao ketua
- Eskarola erdi bat
- Limoi-ura
- Laranja bat
- Arrautza egosi bat
- Oliba berdeak eta baltzak
- Oliba-orioa
- Gatza

**Prestateko errea:**

Eskarolea garbitu eta txikitu ostean, katilu baten ipiniko dogu. Makailaoa be zatituko dogu eta eskaroleari gehituko deusagu. Laranja zuritu eta atalak atarako doguz. Arrautza zatituko dogu.

Entsaladea holan prestauko dogu: erretilu handi baten erdian eskarolea eta makailaoa ipiniko doguz. Inguruan laranja-atlak jarriko doguz. Arrautza-zatiak eta oli-bak eskarolearen eta makailaoaren gainean ipiniko doguz. Beste alde batetik, katilu baten limoi-ura, orioa eta gatza nahastuko doguz. Ondo irabiatu eta gainerik botako deusagu entsaladeari.



**Leire Begoña**  
ILEAPAINDEGIA

Unisex ileapaindegia  
Estetika  
Ondulegi jarraitua  
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO  
T: 94 454 26 32

**OSTEOPATIA-ZENTROA**  
ORDEZKO TERAPIAK

*Lasai*

**Luis M<sup>o</sup> Asensio**  
Terapeuta naturopata

Larrabari, 1 lorja - 48160 DERIO  
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69  
osteopatalasai@gmail.com

**Carnicería**  
**Charcutería**  
**IMAZ**

MUNGIALDE ETORBIDEA,2  
TELFOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko  
ortotzeagaitik

**Nire Autoocasion NA**

**IMPORTAZIOA ETA SALMENTA**

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12  
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92

www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

harategia - urdaltegia

**MIGUEL**

ESPEZIALITATEAK:  
URDAIAZPIKOA  
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 \* DERIO 48160 \* T: 454 52 94

**LOREGARBI** GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, erokorren  
Auzokoen komunitateak  
Muntzetako garbi-ikusiak  
Bulegoak eta lokalak  
Olinu amariako garbiketa  
Ibaitzak  
Zabor bilaketa

Besaide Plaza, 1 - B<sup>o</sup> Aldekone  
48160 DERIO (Bizkaia)  
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92  
656 712 443  
Fax: 94 406 49 93



## Hileko galdera

### Badago ahazteko gaitasunik ez duen pertsonarik?

Bai. Syndrome oso konplexua da, sufrimendu handia eragiten duena. Syndrome hori dutenek memoria ikaragarri handia dute eta edozein informazio, xehetasun, datu edo irakurketa gordezten dituzte automatikoki, informazioak hutsalak edo garrantzigabeak izan arren. Halako pertsonak drama handia bizitzen dute egunero, ezin dituztelako ahaztu xehetasun horiek. Egia esateko, oso gaixotasun arraroa da, baina munduan ezagutzen dira kasu batzuk. Guztira, bost kasu antzeman dira mundu osoan. Gaixotasunari hipertimesia edo hipermnesia esaten zaio.

## Sudokua

			6		9	1
	9			5	3	4
2		7				6
		2				7
1			3			
					2	
	7	3			6	5
4				6		
9			5			1

9	3	6	8	5	7	4	1	2
2	4	5	9	1	6	7	8	3
1	8	7	3	4	2	9	6	5
3	5	8	6	7	4	1	2	9
7	1	2	5	3	9	6	4	8
6	9	4	2	8	1	5	3	7
4	2	1	7	9	3	8	5	6
8	6	9	1	2	5	3	7	4
5	7	3	4	6	8	2	9	1

**ELORRIETA  
INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Unbe kalea, 12 beheko Derio 48160  
94 454 03 86

**639 57 98 48 - 639 58 25 47**

**MARMOLGINTZA  
GOYO**

SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK

Ugaldoguren 1 ind, 10-0 nabes  
48160 Derio, Bizkaia

T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

**KAFETEGIA  
IAZI  
JATETXEA**

Jata kalea, 2 - DERIO  
Tel: 944 54 29 56

## Erakusketak

### Derio

- > "Galerna (1912-2012). Irailaren 4tik 28ra, Kultur Birikan.
- > Aeromodelismoa, SUBYKE elkarteak antolatua. Irailaren 14an, 17:00etan, Seminarioko pistan.

### Larrabetzu

- > Patchwork eta margogintza ikastaroetan egindako lanak. Irailaren 23tik 27ra, Anguleri kultur etxean.

## Hitzaldiak

### Zamudio

- > "Bizikleta astialdirako tresna bat baino gehiago da", Alaitz Barrena eta Rubén Gleraren eskutik. Irailaren 19an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.



## Ikastaroak

### Txorierrri

- > Udal ikastaroetan izena emateko epea:
  - Sondika:** irailaren 3tik 13ra, liburutegian.
  - Derio:** irailaren 9tik 13ra, Kultur Birikan.
  - Zamudio:** irailaren 27ra arte.
  - Lezama:** irailaren 16tik 27ra, liburutegian.
  - Larrabetzu:** udal eta kirol ikastaroetan eta eskolaz kanpoko ekintzetan izena ematea: irailean zehar.

## Ikuskizunak

### Zamudio

- > Txotxongiloak. Irailaren 28an, 11:30ean, liburutegian.

## Irteerak

### Sondika

- > Sella ibaia kanoaz jaitea, irailaren 28an. Izena ematea: irailaren 2tik 8ra.

### Lezama

- > Neouvielle (Pirinioak), Lezama Gailur mendi taldeak antolatua. Irailaren 20tik 22ra.

### Zamudio

- > Leiza-Hernani, Arroeta mendi taldeak antolatua. Irailaren 8an.
- > Pirinioak, Arroeta mendi taldeak antolatua. Irailaren 20tik 22ra.
- > Biasteri. Irailaren 21ean. Izena emateko epea: irailaren 18ra arte.

## Jaiak

### Txorierrri

- > San Migel.
  - Zamudion.** Irailaren 29an: meza ermitan eta kopaua.
  - Larrabetzun.** Irailaren 28an: herri bazkaria (txartelak, Politena tabernan); Mus Txapelketa; erromeria. Irailaren 29an: San Migelera igotzeko autobusa. Izena ematea, irailaren 27ra arte; bazkaria (sarrerak estankotan eta Anguleri kultur etxean, irailaren 16tik aurrera).

## Kirolak

### Zamudio

- > Zikloturista. Irailaren 14an, 09:30etik aurrera. Izena ematea: irailaren 13ra arte, udaletxean.

## Bestelakoak

### Sondika

- > Kromo trukea. Irailaren 8an, 12:00etan, Goiri Erdikoa plazan.
- > Autorik gabeko hiria. Irailaren 22an. Martxa, 10:30ean, Artebe kiroldegian.

### Derio

- > Tokiko Agenda 21, DerioKOMunika-zioak antolatua. Irailaren 18an, 19:30ean, Kultur Birikan.
- > Erdi Aroko azoka. Irailaren 21ean eta 22an, oinezkoen kalean.
- > Lore eskaintza. Irailaren 24an, 12:30ean, Uribe Parkean.

### Zamudio

- > Merkataritza elkartearen aurkezpena. Irailaren 14an.
- > Mugikortasun iraunkorraren astean. Irailaren 14tik 21era.
- > San Martin jaiak prestatzeko batzarra. Irailaren 17an, 19:30ean.
- > San Martin jaietarako kartelak aurkeztea: irailaren 27ra arte. Oinarriak, udaletxean eta zamudiokoudala.net webgunean.



**ADARVE KAFETEGIA**

Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak  
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

**Aislamientos Derio** Tabikeak

Pladurrezko sabalak eta apalategiak

Sabal erregistragarriak

Isolamendu termiko eta akustikoa

Alartza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio  
T: 670 497 928 - F: 944 541 121  
www.aislamientooderio.com

**aldehone**  
hortz klinika  
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar  
Odontologoa

Urbe 7, beheak  
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak zentro bakar batean  
-Aurrakortasun doan  
-Especialitatea: umeak

**astikenemotor**  
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

**eleizalde**  
kafetegia

Lainomendi, 7  
(Elizaren aurrean) 48160 DERIO  
Tel.: 94 454 52 88



Parte hartu  
gure jaietan



Ayuntamiento de  
**Lezama** ko Udala

jaiak euskaraz bizi!

**HARRI-BILBO**   
**HARGINTZA OROKORRA**

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK  
ARKUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

**HAHOTOIA: DURANGON**  
E-mail: recupresaharribilbo@euskalnet.net

**LANTEGIA:**  
Kurtzea Industrialdea, 2/g • 48196 LEZAMA  
☎ 94 452 10 71

**ERAKUSTOKIA:**  
Itxaropena, 2 • 48100 MUNGIA  
☎ 94 674 33 40

**Enaitz**  
TABERNA

Ettxera eramateko  
**BAZKARIAK** eta  
**AFARIAK** prestatzen  
ditugu egunero

**GOZOGINTZA**  
kreatiboa,  
ekarguz

94 455 40 09  
Garaioltza, 74  
48196 Lezama

 **OXANGOITI**  
Kutur Elkartea **TABERNA**

Aretxalde, 54 - tel.: 94 455 50 37  
LEZAMA

**LA  
GUN  
KOR**

ABIOLKULARITZA FISKALA LABORALA KONTARILEA  
ZERBITZU BULEGUA

aretxalde, 68 - 48196 lezama  
t. 944 556 538 - faxa 944 555 084  
lagunkor@hotmail.com

**URREJOLA**  
JATETXEA

Aretxalde, 5  
48196 LEZAMA  
Tel: 94 455 64 83  
Faxa: 94 455 50 94  
www.urrejola.es  
info@urrejola.es

Ezkontzak  
Enpresa-bazkariak  
Menu bereziak



**ZORRIZKETAN**  
LEZAMAKO EUSKERA ALKARTEA

EUSKARAZ BIZI JAIK



BATA BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ  
Tel.: 94 455 60 76



# bertoko

## 2013/2014 ikasturterako eskaintzarik onenak



**IRAILAK 9**  
18:00etan  
Txalaparta



**IRAILAK 10**  
18:00etan  
Pandero



**IRAILAK 11**  
18:00etan  
Euskal kantak



**IRAILAK 12**  
18:00etan  
Trikitixa



**IRAILAK 12**  
18:00etan  
Alboka



**IRAILAK 13**  
18:00etan  
Dultzaina

**matrikula  
zaitez!!**



klaseen hasiera: IRAILAK 16  
615 74 95 68 • 615 74 95 70

**bertokozamudio@hotmail.com**